


ARGIA



BADATORREN FINANTZA KRISIA

Berriz ere salbatuko ditugu?

10-13. orrialdeak



Serorak Euskal Herrian, eliz agintarien susmopean

24 | HISTORIA



Pasaiako segadak "exekuzio baten antza du"

30 | EHUKO TXOSTENA




"Denboraren igarotzea konplot bat bezala bizi dut"

44 | ANGEL ERRO

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #284
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



ESKOLA NOLA BIHURTU ESPAZIO
PSIKOLOGIKO SEGURU

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: SHU OTERO

Iritziak

- 19 | DAVID BOU
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | ANE LABAKA
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | ROSER ESPELT

Finkoak

- 39 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
ZURIÑE HIDALGO
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DANI BLANCO

44 | ANGEL ERRO elkarrizketatu du Gorka Bereziartuak, bere azken poema liburuz. Denboraren joanaz, gaztetasuna galtzeaz, kirolaz, heriotzaz, poesiarekiko aurreiritziez... hamaika gai harilkatu dituzte liburuko poemei jarraiki. Pesimisoa oso presente dago eta aldi berean umore finetik ere asko du elkarrizketa honek.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Bankuen krisia: 2008an al gaude berriz ere?

Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | IONE ATENEA

“Emakumeon zinema txikiagoa dela pentsatzeko eta horregatik balioa kentzeko joera dago”

Reyes Ilintxeta

24 | HISTORIA | SERORAK

Herri ondarearen zaindariak, elizako agintarien jomugan

Josu Narbarte

30 | POLITIKA | PASAIAKO SEGADAZ TXOSTENA

“Judizioz kanpoko exekuzio baten antza du”

Miel A. Elustondo

34 | ELI PAGOLA ETA MATTIN JAUREGI

“Egonarria” saioaren aurkezleak

Estitxu Eizagirre

36 | NAZIOARTEA | NIKITA CHIBRIN

“Ukrainarren garaipenekin pozten nintzela konturatzean erabaki nuen Errusiako Armada uztea”

Aitor Aspuru

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaitz Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Leire Rodriguez, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugun.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

25 YEARS

O

DO NOT
HATCH
WHILE
ARE IN



Justizia bidean?

Mende laurdena bete du Ipar Irlandako Ostiral Santuko Hitzarmenak, gatazka armatuen konponbiderako erreferenteetako bat bilakatu dena munduan. 1998ko akordioaren helburu nagusia biolentziari amaiera jartzea zen. Indarkeria izugarri apaldu da, baina ez da desagertu. Berbarako, aurtan IRA Berriak polizia bati tiro egin dio eta izaten dira PSNIko poliziekin istiluak, eraso sektarioak, loialisten barne gatazka bortitzak... Baina akordioaren ahulgune nagusia botere partekatuko sisteman dago. Blokeoa blokeoaren atzetik etorri da, azken honetan lau urte egin dituzte gobernurik gabe, DUP unionisten betoagatik. Batek hitzemandakoa urratzerik badu nekez egingo du aurrera akordiorik. Unionisten betoa irlandarrek beren etorkizuna erabakitzeko eskubidearen ukazio antidemokratikoa da, Irlandaren zatiketa eta britainiarren okupazioa legitimatzen eta luzatzen jarraitzen du.

📷 "25 urte baka eraikitzen" dioen murala, unionisten eta errepublikarren Belfasteko auzoak banatzen dituen hesietako batean. GETTY IMAGES

📍 AXIER LOPEZ



MOTZEAN

Alemaniako azken hiru zentral nuklearrak eten dituzte. Orain energia berriztagarrien alde egingo dutela diote.

Agiria kaleratu du EPPK-k: berretsi du denen sufrimendua amaitzeko urratsak emateko prest dagoela, eta gogorarazi du urrutze eta sakabanaketa politika bukatu izana "Iuzaz itxarondako albistea" zela.

Osasun garraio publikoa sortzea erabaki du Nafarroako Gobernuak: denera 89 anbulantzia eta 321 langile tekniko osasun larrialdietan eta gidari larrialdietan.

Frantziako Poliziak teknika berria darabil: manifestariak produktu ikusezin batekin markatzen ditu (PMC), ondoren atxilotzeko.

EHU da ikasleko segurtasun aurrekonturik handiena duen unibertsitatea, Espainiako Estatuan. 81,96 euro gastatzen ditu ikasleko.

Armadaren eta talde paramilitarraren arteko gatazkak eztanda egin du Sudanen: gutxienez 97 pertsona hil eta ehunka zauritu zituzten joan den asteburuan.

Aranzadik argitu du oroimen webguneak "alderdien kontsentsuarekin" egin direla

 URKO APAOLAZA AVILA

Galdakaoko PSE-EEko zinegotziak gertuko oroimena jasotzeko Udalaren webgunea dela-eta salatu zuen ETArekin biktimen ondoan "ETArekin terrorismoa" egin dutenak azaltzen direla, eta horrek "iraina eta umiliazioa" ekartzen diela biktima horiei.

Hainbat erreakzio izan dira ostean, eta besteak beste, Espainiako Gobernuak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan duen ordezkari Denis Itxasok, antzeko webguneak dituzten sei udalerriri (Galdakao, Hernani, Oiartzun, Amasa-Villabona, Orio eta Azpeitia) hura aldatzeko hilabete epea eman die; hori egin ezean, auzitara jotzeko mehatxua egin du Itxasok.

Javi Bucos Aranzadiko kide eta webgunearen sortzaileak hauteskudeen atarian kokatu du sortu den polemika. Naiz Irratiari azaldu dionez, Galdakaoko webgunea "alderdi guztien kontsentsua" lortu ondoren egin zen, Udalak Aranzadiri eskatuta, baita antzeko webguneak dituzten beste udaletakoa ere. Hala, alderdi sozialistan "jarrera aldaketa" atzeman du orain Bucosek.

"Haiek bazekiten ze metodologia erabiltzen zuen Aranzadik. Aspalditik datorren sailkapen bat da, ez da Aranzadik asmatua. 2014an sortu zen hainbat elkarteren eta erakunderen artean, eta

oinarrizko kontsentsu bat lortzeko sailkapen hori erabiltzen da", azaldu du.

Bucesen arabera, webguneak "argi" bereizten ditu giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimak eta beste sufrimendu batzuk jasan dituztenak. Nazioarteko zuzenbideak egia, justizia eta erreparazioaz dioena kontuan hartzen du Aranzadik erabilitako metodologia, eta hori pertsonalki azaldu zion zinegotzi sozialistari duela hilabete berarekin harremanetan jarri zenean, Bucos jakinarazi duenez. Harrituta agertu da orain sortu den zalapartarekin.

"Guk ez dugu gure metodologia aldatu, baina posible da aldatzea eztabaida sakon bat baldin badago. Hala ere, orain arte ez da oztoporik izan". Hauteskundeak eta gero giroa baretu eta lanean "berriz hastea" espero du Bucos, udalerriri askotan "oso ondo funtzionatu duen" tresna delako bere esanetan.

Aranzadi elkarteak ere ohar bidez argitu nahi izan ditu webgune horiek egiteko irizpideak. Bere esanetan, alde aurreko adostasun politikoaren ondorio dira, eta "lurzoru zientifiko" batekin eginak. Hala ere, prest agertu da eragile guztiekin lankidetzan aritzeko, "aldaketei edo hobekuntzei buruzko haunarke-ta bateratua egiteko beharra balute". ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Soziali...



UXUE APAOLAZA LARREA

Aspaldian egin gabeko bi gauza egin nituen ostiralean. Taxi bat hartu nuen, eta, ondorioz, irratia entzun. Lehenengo erabakia hartu nuen, Donostiatik Hernanira 20 euro, garraio publiko dirutan merkeagoak eskatzen zidan abentura, euritan, ume batekin, sei ordu autobus batean pasa ondoren, gehiegi zelako. Bigarrena gidariaren erabakia izan zen, irratia entzutearena. Atzeko eserlekuan goxo, erraz etzan zen nire arre-ta hain ederki modulaturako ahotsen gainean.

Elkarrizketa bat zen, baina biek ziruditen esatariak: biek kontrolatzen zuten ahotsezko sedukzioa, hizkera pausatua, ondo puntuatua: komak, eta puntuak, eta puntu eta komak... "gazteen egoera, hala ere, ez da ona, ziurgabetasuna, ez dakite etxetik noiz joan ahal izango duten...", baina ba omen daude gauzak, "oso gertuko kontuak, denok egin ditzakegunak". Horrek ez dauka iraultzaren antzik, pentsatu nuen txantxetan. Ondo jan, ondo lo egin, sozializatu. Ez ahaztu azken hori; jende asko omen dago bakarrik sentitzen dena. Ba ez sentitu, sozializatu, atera lagunekin, edo egin lagunak, edo sozializatzeko behar den hori. Bakardadea baino aspergarriagoa gehienetan, baina beharrezkoa, dirudienez. Pentsatzeak kalte handia egiten du, pentsatzea ez da ona buru osasunerako, eta bakardadeak nahi gabe eraman zaitzake...

Agurtu zuen gonbidatua esatariak, *La Brújula* zen saioa, Axa aseguru-etxeko pertsona bat bestea. Alegia, iragarki bat zen entzuten ari ginena. Aseguru-etxe batena. A, beste zerbait ere esan zuen adituak, ez dakit zertan adituak: batzuetan ez dagoela beste erremediorik, espezialista batengana jo behar dugula. Noski, ea lan egiteko deituko diguten, eta deprimituta harrapatuko gaituzten (bakardadeak, pentsatzeak, nahi gabe eraman zaitzake...). Edo komeni ez diren espezialistak kontsultatzen, ez dakit, auskalo, Marx, Davis... Ez, gazteok, gertuagoko gauzak: ondo jan, ondo lo egin... izan zoriontsuak. Soziali... ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

TREPANATION!



ADUR

Ekonomia

Lau eguneko lan astea, hilabetez probaldian dute Valentzian. Apirilko astelehen guztiak jaiegun izango dira Herrialde Katalanetako hirian, udalaren ekimenez. Uztailean aztertuko dituzte emaitzak. Jaurlaritzak ere asmoa agertu du EAEen proba pilotua egiteko.

Migrazioa

Italiako Gobernuak bost milioi euro gehiago bideratuko ditu etorkinak kanporatzera, eta sei hilabete iraungo duen "migrazio larrialdi egoera" ezarriko du. Besteak beste, aberriatzeko atxilotze zentro gehiago irekiko ditu. GKEek arduragabekeria leporatu diote.

Klima

Itsasoko ura azken 45 urteetako beroena da mundu osoan, apirilaren hasieran neurtutakoaren arabera. Espainiako Estatuko Meteorologia Agentziako bozeramaileak esan du La Niña fenomenoaren amaieraren ondorioz gertatu dela.

Kanpoaldea



ULA IRURETAGOIENA

Kanpora joatearen desioa apirileko gorputz askoren nahi indartsu eta konpartitua izan da. Kanpoaldera joan deskantsu bila, gordeta ditugun egonaldien plazerezko memoriak berreskuratzeko, eguneroko erritmo eta toki espazialek urrutiratzeko, testuinguru aldaketa batek nekean lagunduko duela sinistuta. Ohe desberdin batean esnatu eta beste kafe eta croissantak probatzearen hedonismoan murgiltzeko. Denbora mugatu batez, salbuespen egoeran egoteko leku batek jasotzeko nahiak bultzatuta. Egunerokoaren azkartasunak esaten digu, merezi dugula horrelakorik, ez dela penitentziarako garaia, adiskidetzekoa baizik. Zeozker zentzurik badu garai honetan, deskantsuari leku egitea da, egunerokoan jarraitzea posible egingo duen bitartekaria. Kanpora iristeko jokaldiak badu ihesaldi baten zantzurik eta oso plurala da gainera, hirietan bizi diren hegaztien soinuek kantatu duten moduan.

Kanpora joatea mugimendu boteretsu bat da, ohitura edo joera baten errepikapenarekin zerikusirik ez duena. Behar fisiko batetik eratorritako mugimendu bat lurraldean eragina duena, gorputz ahultasuna eta agortzea deskubritzen duena, sentsibilitate ekologistarik balezko berau lausotzeko gai dena, kanpoalderako joan-etorrian mugikortasun eredu jasangarritik aldenduko gaituena, edota kritikatu ohi dugun turismoaren notizia onen parte bilakatuko gaituena.

Kanpora goaz, barnean ez gelditzeko. Eta kanpoaldea, askotan, landa-eremua izaten da, hiri eta herrien ingurune erai-ki eta antropizatutik aldentzea, natura hitz iheskorrek jaso gaitzan. Bertan bilatuko dugu barnean faltan bota edo ez dugun hori, nostalgian eta erromantiko-tasunean erortzeko arriskuan. Kanpoalde horretan errealtate desberdin asko daude, batzuk ez hain ederrak, baina gure begiradak lurraldea sailkatzen du deskantsurako egokia dena eta ez denaren artean mapatik desagerrarazi arte. Gorputzak baietz dioen arren, lurraldeak dio ez dagoela kanpoalderik. ●

Mugimenduak Ekialde Hurbileko xake taulan

AXIER LOPEZ

Zazpi urtez etsaituta eta harreman diplomatikorik gabe egon ondoren, Iran eta Saudi Arabiako eskuin muturreko teokraziek harremanak berreskuratu dituzte martxoaren 10ean iragarri duten akordioaren bitartez. Horrek aldaketa esanguratsuak eragin ditu Ekialde Hurbileko panorama geopolitikoan. Txinaren bitartekaritzari esker, xiiten eta suniten bi potentzia handien arteko hurbilketak nazioarteko potentzien interesen arabera markatutako eskualdean eragina izango du. Noski, haien helburua ez da humanitarioa edo jendearen hobe beharrean pentsatutakoa, barne eta kanpo gatazka eta interesen arabera orain hartutako erabakia da. Saudi Arabiak 2016an eten zituen loturak Iranekin, Riaden elizgizon xiita bat exekutatu eta Teheranen zuen enbaxadari eraso egin ondoren.

Egungo harreman-aldaketak hainbat ondorio eragin du.

YEMENGO GERRAREN AMAIERAREN HASIERA

Urte luzez, Yemen xake taula gisa erabili dute Iranek eta Saudi Arabiak euren arteko ezberdintasunak ebazteko eta Ekialde Hurbilaren hegemonia borrokatzeko. Yemengo lubakiaren alde banari laguntza eman dio bakoitzak. Azken aste hauetan, aldiz, bi aldeak su-eten iraunkorra negoziatzen ari dira, munduko krisi humanitario larriaren bati amaiera emateko.

2014an, Iranek babestu zituen huthiek kanporatu zuten Saudi Arabiak babestutako Yemengo gobernu, herrialdearen iparraldean gotortu ziren eta beren ekintzak justifikatu zituzten ustelkeria eta atzerriko esku-sartzearen aurkako borroka gisa. Ordutik, Saudi Arabia buru duen koalizio bati egin diote aurre, herritarren %80k laguntza humanitarioaren mende utzi duen gatazka odoltsuan.

NBEk Yemenen duen ordezkari berezi Hans Grundbergen arabera, "herrialdea bake iraunkorra lortzetik gertuago dago". NBEren arabera, 400.000 hildako inguru eragin ditu gerrak. Azpimarratu

behar da negoziazioak erraztu dituztela aurretik bi aldeek egindako mugimendu batzuek, esaterako, ehunka atxilotu askatu izanak.

SIRIAREN 12 URTEAK

Ikusmiran dagoen beste gune garrantzitsua Siria da. Martxoaren 11n hamabi urte bete dira Siriako gerra hasi zenetik. Han ere, Saudi Arabia eta Iran elkarren aurka borrokatu ziren alde bakoitzari babesa emanda. Iranen babesa duen Bashar al-Assad gobernuarekiko jarrera oldarkorra alboratu du Saudi Arabiak. Siriako presidentea, bere aldetik, Moskun bildu berri da gerran, Iranekin batera, bere aliatu nagusia denekin: Errusiako presidentea Vladimir Putinekin, biren arteko aliantza indartzeko bisita batean.

Iran eta Saudi Arabiako eskuin muturreko teokraziek harremanak berreskuratu dituzte. Horrek aldaketa esanguratsuak eragin ditu

SIONISTAK HASERRE

Israelek Saudi Arabia gehitu nahi zuen Iranen aurka sustatu duen frontieran, baina akordio horrek bertan behera utzi du bizilagun arabiarrekin harremanak estutzeko nahia. Eta hala, bi potentzien arteko akordioa erregimen sionistaren segurtasunerako "urrats arrikutsua" dela esan du Netanyahu gobernuak.

AEB VS TXINA

Akordioa lortu izana Txinaren diplomaziarentzat eta atzerri- eta ekonomia-politikarentzat garaipena izan da. Txinak jokatu duen bitartekari-rolak AEBek eskualdean duten rol nagusia ahultzen du. Saudi-iranar akordioa egonkortzea lortuko badu, (nahiz eta zaila izan), Txinak bere eragin ahalmena handitzen jarrai lezake zonaldeko beste gatazka batzuetan bitartekaritza eginez, Libian kasu. ●

TEKNOLOGIA

Iraunda ere desagertu?



DIANA FRANCO

Bikoizketa automatikoaren inguruan zenbait eztabaidaren oihartzuna heldu da nire belarrietara aste honetan. Badirudi, badela zenbait adimen artifizial bikoizketa maila altua lortzeko bidean dagoena, gizakion parekoa, eta bikoizketa lana denbora errealean egin dezakeena.

Azken hogeitun urteetan jada lanbide askotan digitalizazioak ekarri duen lan galeraren mehatxua oraingoan bikoizle antzezleengana dakar teknologia honek. Bikoizketan dabiltzan profesionalen euren lan aukerak txikituko direla uste dute, modu merkeagoan adimen artifizial batekin ahots originalak erabilita edozein hizkuntzetara itzulpenak egiteko aukera garatzen doan heinean. Horretara helduko bagina, adibidez, Cate Blanchett euskaraz "bere ahotsean" entzun ahalko genuke, automatikoki bikoizturiko edozein pelikulatan. Hori guztia dela-eta, bikoizketa antzezle hainbat sindikatuk ahotsa altxatu dute: etorri behar denaren aurrean arreta jarzea eta arautzearen inguruan hausnarketa egitea eskatu dute.

Baina, eta hau guztia mehatxua baino, aukera balitz? Hizkuntza gutxituentzat aukera balitz? Noraino helduko da teknologia hau? Egongo al da bideo eta streaming plataformetan botoi bat, edozein hizkuntza jarrita bat-bateko itzulpen automatikoa egiteko? Onuragarria izango al litzateke hau hizkuntza gutxituentzat?... Hasiera batean baiezkota etorri zait burura, baina pentsatzen jarrita, itzultzaile automatizatuarekin munduko eduki guztiak gure hizkuntzan kontsumitzeko aukera bagenu, zertarako sortu hizkuntza gutxitu batean? Zein kultura izango litzateke izango genukeen kultur transmisioa? Nahiz eta hizkuntza askotarikoak izan, mundu-ikuskerak homogeinizatuko liratekete? Onuragarria litzateke? Hizkuntzek iraunda ere, kulturak desagertzeko bidean egongo liratekete? ●

Txina inguratuz AEBek dituzten base militarrik



ITURRIA: DAVID VINE

“JAZARPEN MORALA ETA HERTSAPENAK JASATEN ARI NAIZ EUSKARA ERABILTZEAGATIK”



AITOR MONTES

Aramaioko medikuak salatu du Osakidetzako beste mediku batek bere paziente baten historia klinikoan Montesenen kontrako mezuak idatzi dituela, euskara ez erabiltzeko eskatuz.

2023-04-15

BANKUEN KRISIA: BAINA 2008AN AL GAUDE BERRIZ ERE?

Silicon Valley Bank-en porrotak eragin duen mundu mailako finantza ekaitzaldia hasi besterik ez da egin. 2008ko krisiaren ondotik kontrolpean behar lukeen bankuen sektorea ez dago inolaz ere horrela: *shock* ostean araututakoa, gero desarautu egiten da berriz... hurrengo hondamendia gertatu arte.

 URKO APAOLAZA AVILA

Martxoaren 10ean, AEBetako hamaseigarren finantza erakunde handienak porrot egin zuela entzun genuen gutako askok gosaritan, irratia piztuta genuela. Silicon Valley omen, bankuaren izena. Ez zirudien oso larria, ez da 2008 urtea, ezta Lehman Brothersen leherketa hura ere. Baina egunak eta asteak aurrera joan ahala, ikusi da finantza merkatua zein koldarra den.

Bi egun geroago Signature Bank –kriptotxanponen AEBetako banku handiena– eta First Republic bankuek jarraitu zioten aurrekoaren bideari. Astebeteren buruan krisia Europara iritsi zen eta Credit Suisse 167 urteko bankuak erreskatea eskatu behar izan zion Suitzako banku zentralari. Hortik egun batzuetara, martxoaren 24an, Deutsche Bank Alemaniako finantza konpainia erraldoiak dar-dar egin zuen, bere akzioak %15 amilduta...

Zer da hau? Berriz ere 2008an gaude? *Déjà vu* gisako bat bizitzen ari garen irudipena du askok, ez arrazoi gabe: “Gauza bat garbi geratu da, Lehman Brothersen kiebratik hamabost urtera, dena berriz gertatu daiteke”, dio *Le*

Martxoaren erdialdetik bolo-bolo dabilen ikerketa baten arabera, AEBetako 186 banku Silicon Valley Bank-en egoera berean aurkitzeko arriskuan daude

Monde Diplomatique-ek apirileko zenbakian argitaraturiko *Finance, la roue carrée* (“Finantza, gurpil karratua”) artikuluan.


Silicon Valley Bank-en (SVB) hondoratzea Erreserba Federalaren Sistemak azken hilabeteetan abiatutako interes tasen igoera bortitzak eragin du, dirudinez, banku horrek bere aktiboak epe luzeko altxor-bonuetan zituztelako inbertiturik eta tasen igoerarekin errentagarritasuna galtzen ari zirela ikusita bezero guztiek haien gordailuak korrika

atera zituztelako. *Bank run* deitzen diote gauza hauetaz dakitenek.

AEBetako Gobernuak suhiltzaile lanak azkar egin ditu ordea. Bankuak laguntzeko finantza programa jarri du martxan, berme gisa bonu publikoak erabilia, eta gordailuak aseguruatuz dizkie bezeroei, ez bakarrik 250.000 dolar arteko aurrezkiak dituztenei, hortik gorako guztiei ere bai! Suitzan ere erakunde publikoen eskutik etorri da txorrotada: banku nazionalak 100.000 milioi franko suitzar injektatu ditu Credit Suisse, bere lehia-kide den UBSrekin fusioa errazteko.

Diru publikoa aberatsak berriz salbatzeko erabiliko da hortaz –zeinek ditu 250.000 dolar baino gehiago bere kontuan?-. Horra *déjà vu*-aren beste osagai bat. Baina dena ondo dago agintarien esanetan, 2008tik abian jarritako kontrol mekanismoek funtzionatu dute: “*Don’t worry*, zure diruak seguru daude”, esango dizu Bidenek. “*Pas de problème*, gure sistema indartsua da”, Lagardek.

Haatik, martxoaren erdialdetik bolo-bolo dabilen txosten batek ez du lasai egoteko gogo askorik ematen. *Social Science Research Network* atarian argi-



Shock ekonomiko baten ostean, kontrolak zorrotzeko eta arautzeko inplutsua dago, baina ondoren finantza sistema desarautu egiten da, kapitalismo monetarioak hala eskatzen duelako. Hori gertatu zen 1970eko hamarkadan eta 2008ko krisiaren ostean. Irudian, New Yorkeko burtsaren egoitza Wall Streeten 1930ean, krisi betean. ERRESERBA FEDERALAREN SISTEMA / FLICKR

taratua –izen serio horrekin are gogo gutxiago–, ikerketak ohararazten du AEBetako bankuen aktiboen balioa – daukaten ondasun, berme eta kaudimena– kontabilitate liburuetan agertzen dena baino ia bi bilioi dolar gutxiagokoa izan daitekeela, azken urtean izandako interes tasen igoeragatik. Honen arabera, AEBetako 186 banku SBVren egoera berean aurkitzeko arriskuan daude.

“Finantza krisi estatubatuarren sakoneko arrazoia agintariak bultzatutako desarautzean bilatu behar da, hain handiak ez diren bankuen gaineko kontrola ahuldu delako”. Hala dio Andreu Missék *Alternativas Económicas*-eko zuzendaria, *Lecciones de una nueva debacle* (“Hondamendi berri baten lezioak”) artikuluan. Urte luzez *El País* egunkariaren ekonomia saileko buru izandakoak oroitarazi du duela bost urte AEBetako Senatuak Dodd-Frank legea “biguntzeko” neurriak hartu zituela. Lege hori 2008ko *shock*-aren ondoren sortu zen, arauak zorrozteko eta beste finantza hondamendi bat saihesteko. 2018ko eztabaidan, “bankuei gutxiago exijitzearen aldekoen artean Jerome Powell nabarmendu zen, egungo AEBetako Erreserba Federalaren presidentea”, dio kazetari

Bankuen gaineko kontrola biguntzeko Silicon Valley Bank-ek senatari demokraten botoa erosi zuen, bateko diru bilketak eginda, besteko ate birakariak erabilia

kataluniarrak bere artikuluan.

Baina Powellek eta alderdi errepublikarreko bere burkideek ez ezik, hamazazpi senatari demokratek ere bozkatu zuten Dodd-Frank legea desarautzearen alde. Eta orain jakin dugu erabaki horren atzean bankuen presioa zegoela, tartean SVB eta Signature Bank bankuena.


TRENA ERRAILETATIK IRTETEN DENEAN

Ikerketa kazetaritzan espezializaturik dagoen *The Lever* aldizkariak ezagutarazi du AEBetako Senatuaren estoldetan finantza sektoreak egiten duen azpilana erabaki politikoak baldintzatzeko. David Sirota esatari, zutabegile eta zinegileak sortu zuen *The Lever* duela gutxi, aurretik *The Daily Poster* deitua. Sirota ezaguna da AEBetako ezkerreko mugimenduetan; besteak beste *Jacobin* aldizkari marxistan edizio lanak egiten ditu eta Bernie Sanders Etxe Zurirako hautagaia- ren diskurtsoak berak idatzi zituen.


The Lever-ek hainbat artikulutan xehatu du SVBen eta Signature Bank-en jokabidea: *SVB Chief Pressed Lawmakers To Weaken Bank Risk Regs* (“SVBren buruak legelariak presionatu zituen, bankuentzako arrisku-arauak biguntzeko”), izenburua jarri diote haietako bati. Sirotak berak kontatu dio ikerlanaren muina Amy Goodman kazetariari *Democracy Now!* gunean. “Greg Becker SVBren presidentek AEBetako Kongresuan hitz egin zuen, Dodd-Frank legea desarautzea aztertzen ari ziren bitartean”, dio esatariak. Estres frogak derrigor pasatzeko, banku batek 50.000 milioi dolarretik gorako ak-



JEROME POWELL Erreserba Federalaren Sistemako buruaren agerraldia prentsaren aurrean. Galderaz josi dute egunotan, AEBetako bankuen gaineko kontrol arauak biguntzeko egindako ahaleginaz gain, interes-tasak igotzeko bere politikak finantza krisia ekarri duelako. ERRESERBA FEDERALAREN SISTEMA / FLICKR



ARRISKUAN. AEBetako bankuei buruzko ikerketatik harturiko irudiotan, ezkerreko mapan konderrri bakoitzean galtzeko zorian dauden gordailuak ageri dira (urdin ilunak kopuru handiagoa adierazten du); beheko grafikoan, kiebra jotzeko arriskua duten bankuak, aseguratu gabeko gordailuen eta aktiboek jasandako galeren arabera (gorriz hamar handienak, beltzez Silicon Valley Bank).



tiboak izan beharrean, 250.000 milioitik gora izatea gomendatu zuen, "baita lortu ere, langa igo baitzuten".

Horretarako SVBek demokraten botoa erosi zuen, bateko diru bilketak eginda, besteko ate birakariak erabilia. Nola ulertu, bestela, lege hori bultzatu zuen Barney Frank senatariak berak kargua utzi eta Signature Bankeko besaulkietan esertzea? *The Wall Street Journal*-en arabera, honek ere presio egin zuen orain porrot egin duen bankutik, bere legeari harakiria egiteko. "Ustelkeriari buruzko pelikula batean halakorik jarritz gero, gidoilariak esango luke kopeta handiegia izatea litzatekeela, erridikulua dela", azaldu dio Sirotak Goodmani.

Baina tamalez ez da fenomeno bakana, eta beste gertaera batekin konparatzen du politikarien jokabidea *The Lever*-en sortzaileak: otsailaren 10ean AEBetako Ohio estatuan gai toxikoak zeramatzan tren bat errailetik irten eta gertaturiko leherketa larriarekin. Urte batzuk lehenago antzeko istripu batzuk izan ziren trenbide garraioan eta arauak zorrotz

zizuten; baina gero, industria kimikoak lortu zuen Ohiokoa bezalako trenak ez katalogatzea "arrisku handikoak" balira bezala eta legea berriz aldaraztea.

"Krisiak gertatzen direnean arautzeko bultzada bat dago -dio Sirotak-. Baina orduan, jendea ahaztu egiten da, edo politikariek itxaroten dute jendea ahaztu arte, eta gero desarautzeko beste bultzada bat dator".

BANKU PRIBATUA ALA PUBLIKOA?

Orduan, zein da bidea? Galdera hori egin du Michael Roberts ekonomialari marxistak *The Next Recession* blogean idatzirik post luze batean -orriotan askotan aipatu dugun zor bidegabea abolitzearen aldeko CADTM elkarteak zabaldu du gaztelaniazko bertsoia, *Sin Permiso* atariak itzulita-.

"Hau jadanik krisi handi bat da, erraz konpara daitekeena 2008koarekin", dio egileak. Batzuen ustez arau zorrotzagoak behar dira -Joseph Stiglitz Ekonomiako Nobel saridunak hala adierazi zuen, adibidez-, baina Roberts ez dago

hain ziur: "Arautzeak ez du funtzionatzen, kiebrek jarraitzen dute". Kapitalismo monetario honetan bankuek joko-arauak urratzen dituzte etengabe, eta 2008an bezala, orain ere araugileek huts egin dutela dio. Bere ustez, aukera bakarra "banku modernoak zerbitzu publiko batean bihurtzea da, osasungintza, hezkuntza edo garraioa diren moduan".

Egia esan ez gaude hortik oso urrun, eta Martin Wolf *Financial Times*-eko editore buru entzutetsuak ere aitortu du hori bere zutabeetako batean: 2008ko krisiaz geroztik "banku sistema bere osotasunean, eta anbiguotasunik gabe, Estatuaren parte bilakatu da". Baina ARGIAren zenbaki honetako iritzien sailean Roser Espeltek diogen bezala, zer finantzatu erabakitzeko gaitasunak jarraitzen du dopaturiko bankuen esku.

Bitartean, "*Trankil*, Kutxabank salbu dago", esango dizu baita Azpiazu sailburuak ere... Eta bestela beti geratuko da, hurrengo leherketa gertatzen denean, lehen desaraututakoa berriz arautzea. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Ione Atenea

GERTUKOAREN HARRAPATZAILEA



EMAKUMEON ZINEMA TXIKIAGOA ETA INTIMOAGOA DELA PENTSATZEKO ETA HORREGATIK BALIOA KENTZEKO JOERA DAGO



Bada Nafarroan emakume zinemagile gazte eta euskaldun talde bizkor bat film dokumental oso berritzaileak egiten ari dena. Horietako bat da Ione Atenea. Bartzelonako etxe batean bizi izan ziren García anaia-arrebek utzitako ikus-entzunezko material eskerga oinarri hartuta, *Los caballos mueren al amanecer* (Zaldiak egunsentian hiltzen dira) bere bigarren filma egin du. Francoren diktaduraren errealitate grisetik ihes egiteko sorkuntza eta fikzio-gune bihurtu zuten etxe hartan sartzeraren gonbidatzen gaitu orain.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Nola iritsi zara zinemagile izatera?

Beti interesatu zait argazkigintza eta makina txiki bat izan nuen umetatik. Arte Ederrak ikasi nuen, ez dakit oso ongi zergatik. Ondoren zerbaitean sarkontzea erabaki nuen eta orduan Valentziara joan nintzen argazkigintza ikastera. Buru-belarri sartu nintzen horretan eta amaitutakoan Nafarroako Gobernuaren beka bat lortu nuen Sorkuntza Dokumentala ikasteko, nire ahizpa Marina Lameirok egina zuen bezala. Bera ni baino gazteagoa da, baina oso garbi izan du betidanik zinema egin nahi zuela.

Zinemagintzatik bizitzea zaila da?

Bai, eta argazkigintzatik ere bai. Nire proiektu artistikoez gain beste lan batzuk egiten ditut bizi ahal izateko, promozio bideoak adibidez. Enkarguak eta proiektu pertsonalak modu paraleloan egiten ditut.

Enero eta Los caballos mueren al amanecer dira zure lehen pelikulak. Zer dute amankomunean?

Nire lan guztiak bizitako esperientzia bat dokumentatzeko desiotik sortzen dira. Gertukoarekin lan egiteak erakartzen nau. Bi lan horietan legatuaren ideia

eta heriotzaren presentzia oso nabarmenak dira. Sormen prozesua ikaspen gisa bizi dut eta bukaerako lanak hori guztia biltzen du.

Enero-n zure bi amonekin izandako elkarrizketak biltzen dira. Zer bilatzen zenuen?

Film honekin hasi nintzenean baneraman denbora nire jatorrien inguruan hausnartzen. Kozinatzen genuen bitartean edo paseoan genbiltzanean, haien bizitzari buruz galdetzen nien amonei. Haien istorio pertsonalei esker nolakoak izan ziren nik bizi ez ditudan garai ho-



Ione Atenea

IRUÑEA, 1985



EHUn Arte Ederrak ikasi ondoren, Valentzian argazkigintzako master bat eta Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatean Sorkuntza Dokumentaleko masterra egin zituen.

Enero (Urtarrila) bere lehen film luzea 2019an estreinatu eta Gijongo Zinemaldiko Opera Prima Onenaren saria jaso zuen. Iaz Ikuspuntu-Punto de Vista jaialdian *Los caballos mueren al amanecer* (Zaldiak egunsentian hiltzen dira) aurkeztu zuen eta honekin Panorama Saria lortu zuen Kanaria Handiko Las Palmaseko Nazioarteko Zinema Jaialdian. Hiruki filmak ekoiztetxeko sortzaileetako bat da Marina Lameiro ahizpa eta Garazi Erbururekin batera.

riek ikasten ari nintzela ohartu nintzen. Jakinduria hori guztia transmititzen ari zitzaizkidala sentitu eta hori kamera batekin biltzea erabaki nuen. Bestalde, interesatzen zitzaidan jakitea nola ari ziren bizitzen haien mundualdiaren azken fase hori. Denboraren joanak beti interesatu eta kezkatu izan nau. Nola egiten diozu aurre etorkizunari zure bizitza ia osoa iragana denean? Hori zen jakin nahi nuena.

Zer ideia gelditu zaizu buruan iltzatuta?

Idea batekin gelditzekotan aukeratu nuke amona nafarrak esan zidan bat: norberak bere burua maitatzea dela garrantzitsuena, eta ez duzula inoren beharrik zoriotsua izateko. Nire bi amonek oso bizimodu desberdinak izan zituzten. Galiziako amona hiri batekoa zen, nafarra, aldiz, herri txiki batekoa, biak Francoren garaian haziak. Kontraste asko zuten haien artean, baina nik bilatu nuen baten zituena.

Zahartzeari beldur diozu?

Boladaka. Lehen lasaiago nengoen, baina orain berriro kezkatuta nabil denborak oso azkar ihes egiten duela. Hori umetatik gertatzen zait. Uste dut denboraren joanean pentsatzea ez dela oso kontu normala haurrengan, baina nire bizitzan beti egon da presente.

Los caballos mueren al amanecer oso modu berezian sortu zen, ezta?

Bai. Ideia sortu zen Bartzelonako etxe bat okupatzera sartu ginenean eta han zegoen guztia ikusi nuenean. Han hiru anaia-arreba bizi izan ziren eta haien sormen lan eta jokoetan erabilitako argazkiak, diskoak, testuak, marrazkiak eta pelikulak aurkitu genituen. Altxor bat.

Okupa moduan bizi zara aspalditik. Zergatik?

Alde batetik, niretzat bizirik irauteko modu bat da eta, bestetik, borroka eta protesta egiteko bidea. Erabiltzen ez den espazio batera sartzea, behin-behinean eta modu prekarioan bada ere, etxebizitza edukitzeko pertsona guztien eskubidea aldarrikatzeko ekintza bat da.

Etxe horretan sartzea eta abandonatuta zeuden gauza horiek

guztiak berreskuratzeak justizia poetikoa dirudi...

Zentzu horretan, okupek hartzen duten guztia suntsitzen dutela dioen topikoa desmuntatzeko balio du film honek.

Etxean sartu ginenean, oraindik norbait bizi zela sentitu genuen. Emanen zuen ogia erostera joanak zirela edo horrelako zerbait, baina baziren hiru urte etxea hutsik zegoela.

Aurkikuntza bat izan zen, sorpresa bat. Zorte antzeko bat sentitu nuen, altxor bat eskuratzeko ilusioarekin nintzen: iraganeko mundu hori eta da-goeneko ez dauden bizitza batzuk.

Nolakoak ziren han bizi ziren pertsonak?

Antonio izan zen profesionalki horretara dedikatzeak aukera izan zuen bakarra. Marrazkilaria izan zen Bruguera argitaletxean. Rosita kantaria zen eta piano klase batzuk eman omen zituen, baina besterik ez. Juanitok ez zuen lanbide artistikorik. Desgaitasun bat zeukan, baina hartu nuen hori ez nabarmentzeko erabakia, desberdin ez egitearren. Ezaugarri hori zeukan, beste edozein bezala, baina pelikulan ez dut hori azpimarratzeko beharrik. Hiruen artean asko jolasten zuten eta agian bera zen jolastiena, besterik ez. Zinema klasikoko izarrak izan ziren, Bigarren Mundu Gerrako soldaduak, gangsterrak, astronautak, zientzia fikziozko heroiak, mendebaldera egindako bidaia betiereko batean cowboy bakartiak...

Bat-batean atera ziren etxe horretatik?

Rosita izan zen azkena, eta imajinatzen dut erietxera eraman behar izan zutela eta horregatik gelditu zela dena zegoen bezala, baita hozkailuan zeuden gauzak ere. Gu sartu izan ez bagina oraindik legoke hutsik eta halako tokietan sagu, uso eta beste animalia batzuk ugaltzea erraza da. Hutsik dauden etxeak azkar doaz gainbehera.

Koloretako irla moduko bat zen gerraondoko Bartzelona hiri gris hartan?

Bai, eta imajinatzen dut halako gauzak egiten zituen jendeak etxean eta ezkutuan egiten zituela. Filmaren beste helburu bat izan da Bartzelona hiriaren kronika bat egitea. 50-60 hamarkadetako Bartzelonan barnako ibilaldia ere bada.



Zu eta zure lagunak ere sartzten zarete kontakizun horretan. Zergatik?

Ez nuelako soilik pertsona batzuen istorioa kontatu nahi. Belaunaldien arteko harremana egin nahi nuen. Orainalditik egindako begirada bat da eta horregatik neure burua sartu nuen, ez protagonistat gisa, baina bai gidari moduan. Hainbat garaitako pertsonen arteko lekuko pasatze moduko bat da. Horregatik kamera gorputzaren luzagarri bezala erabiltzen dut eta ikuslea ere filmaren barnean sentitzen da.

Argi utzi nahi nuen, bestalde, zer jartzun nuen nik eta aurkitutako informazioa zer zen; irudipena nuen niretzat oso gertuko pertsonak zirela, ni haien etxean bizi bainintzen, eta horregatik ez nintzela eroso sentituko istorio bat asmatuko banu. Film zoragarriak daude aurkitutako material dokumentalaren bidez istorioak egiten dituztenak, baina aurkitu nuenari ahalik eta leialen izan nahi nuen. Izan ere, artxibo pertsonal batzuk belaunaldiz belaunaldi trans-

mititzen dira: baina zer gertatzen da istorio horiekin inork jasotzen ez ditue-nean?

Hiruki Filmak, zu partaide zaren ekoiztetxeak ekoitzi du filma. Zein da Hirukiren filosofia?

Marina nire ahizparen lehen pelikulan, *Young&beautiful* (Gazte eta ederra), parte hartu nuen aktore gisa. Orduan erabaki genuen gure ekoiztetxe propioa egitea gure proiektuak aurrera ateratzeko eta beste emakumeei ere haienak egiten laguntzeko. Arantza Santesteban zinemagile iruindarra berehala jarri zen harremanetan gurekin eta *918 gau* bere filma elkarrekin egitea proposatu zigun. Izugarri gustatu zitzaigun eta dena oso ongi joan da. Oso ekoiztetxe txikia da eta horregatik, oso politak diren proiektuak batzuetan bazterrean utzi behar izan ditugu, tamalez.

Halako dokumentaletarako dirua nola lortzen da?

Dirulaguntzetatik bereziki. Komertzialki film horiek ez dute dirurik ematen. Nafarroan zorte handia dugu, Generazienema programatik laguntza ematen digutelako, baina zaila da laguntza asko jasotzea zinema komertzialago baterako diseinatuta dagoelako.



“Etxeak okupatzea, batetik, niretzat bizirik irauteko modu bat da eta, bestetik, borroka eta protesta egiteko bidea”

Ikuspuntu-Punto de Vista jaialdiak ere laguntzen du?

Bai, eta laguntzen du, bereziki, jende gazteak ikas dezan. Eskola moduko bat da non hainbat egunetan kaltetate handiko lanak erakusten diren. Oso garrantzitsua da Iruñerako, harrobia egiten laguntzen duelako.

Zinemagile emakume, gazte eta euskaldun belaunaldi indartsu bat ari zarete gauza interesgarriak egiten orain Nafarroan...



aholkukoop
Fiskala Kontabrea Laboraria

**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

Ametzagaina 17, behea / Donostia
943 005 680 aholku.eus



LUAarkitektoak

ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA
www.luark.com
9481 52697 - Arga ibaitz kalea 25 30 Iruña



mitxelena
MEKANIZATUAK

© 2018 © 2019

mitxelena
MEKANIZATUAK

Ezigo industrialeko 21, HERNANI 943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.eus www.talleresmitxelena.eus



Ni oso pozik nago denak miresten ditudalako eta oso gustura sentitzen naizelako elkarri lagunduta eratu ahal izan dugun komunitate honetan.

Neurri handi batean, nire erreferenteak haiek dira: Arantza Santestebanen *918 gau* filmetzarra, Maddi Barberren *Gorria*, *Urpean Lurra*, *592 metroz goiti*, *Paraíso*, Marina Lameiroren *Young&beautiful*, *Dardara*, Irati Gorostidi eta Mirari Echavarriren *San Simon 62*...

Zer duzue amankomunean?

Etika bat zinema pentsatzeko eta egiteko orduan. Eta bat gatoz bizitza ikusteko moduan. Denak abiatzen gara gertatzen zaizkigun gauzetatik, inguruan dugun horretatik.

Genero arrakalaren ondorioa da emakume gehiago aritzea mota honetako zinemagintzan besteetan baino?

Estatistikak begiratuta erraz ikusten da emakumeok orokorrean askoz aurrekontu baxuagoak ditugula filmak egiteko. Guk gertukoa egiten dugu hori delako nahi duguna, baina egia da oztopo gehiago dugula, eta egiten dugun zinema txikiagoa eta intimoa dela pentsatzeko joera dago, horregatik balioa kenduz. Sistema osoa deseraiki behar da maila berean egiteko.

Fikziorik egiteko asmorik baduzu?

Badituzte ideia batzuk. Esperimentatzeko gogoak dituzte, baina denbora, jendea eta diru asko eskatzen dituen proiektu batean sartzeak beldur pixka bat ematen dit. Horregatik nahiago dut modu

hibridoan planteatu, aktorerik gabe, adibidez.

Idea bat da munduan beren tokia posizio antagonikoetatik bilatzen duten bi lagun nerabeen fikziozko istorioa. Beste bat da Komando Autonomo Antikapitalisten inguruko dokumental bat, kide baten istoriotik kontatua. Pertsona hori orain zahar egoitza batean bizi da. Berak zinemagintza ikasi zuen 68ko maiatzean, Parisen unibertsitatean ari zela *liberatu* zen eta Lloret de Mar herrian egin zuten lapurreta bat iruditan jarri nahi izan du beti. Borrokara emanda bizi izan da eta orain denbora pasa nahi du berarekin, zerbait dibertigarria eginez. Modu horretara borroka horren memoriaz hitz egin nahi dugu.

Nola ari da aldatzen zinemaren kontsumoa?

Pena handia ematen dit zinera joateko ohitura galtzen ikusteak. Puntu kolektibo hori galtzea oso tristea da.

Eta dokumentalena?

Bada jendea oraindik erreportajearen pentsatzen duena dokumentala esaten duzunean.

Batzuei asko kostatzen zaie genero honetara hurbiltzea, baina gero konektatzen dute. Pelikula komertzial asko dituzten egitura finkoak aspergarriak suertatzen dira askotan, horregatik jendea bestelako gauzak ikusten hasten denean, bere gustuak aldatu egiten dira. Begirada hezten hasten dira. ●



Marc, Dani eta Ramón



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Artikulu honen izenburuan agertzen diren hiru izen propioak ez datoz bat horrela deitzen ziren pertsonen errealtatearekin. Marc Hernández Pons, Dani Hernández Pons eta Ramón Martínez Hernández ziren Barne Ministerioak Polizia Nazionaleko hiru agenteri emandako nortasun faltsuak. Beren misioa: 2020tik aurrera Herrialde Katalanetako mugimendu sozialetan infiltratzea eta ahalik eta informazio gehien biltzea.

Hainbat espioi aktibismoan sartzeko estatuaren eragiketa baten pieza gisa, hiru pertsonaiek elementu komunak zituzten, bai beren polizia-biografian, bai fikziozko nortasunei forma emateko moduan. 2.587 ikaslek osatutako 33. promozio lankideak 2017ko irailaren 11n sartu ziren Avilako polizia-eskolan, eta karguaren zina zeremonia berean egin zuten, 2019ko ekainaren 13an.

Ondoren, Informazio Komisaldegi Nagusiak zehazki hautatu zituen bi urte baino gehiagoz beren benetako bizitzetatik urrun egoteko, gezurrean oinarritutako berri bat eraikitzen zuten bitartean, eta, horrela, arbuaitzen zituzten pertsonen konfiantza lortzen zuten. Daniren kasuan, batzar, jardunaldi eta manifestazioetan parte hartzea erraztuko zioten emakumeekin sexu harreman afektibo instrumentalak izatera iritsi zen.

Estatuak eskrupulurik gabe erabiliko ditu eskura dituen tresnak egungo *statu quo*a aldatzeko edozein saiakera sabotatzeko

Infiltrazio estrategia horrek Bartzelonako hainbat proiektu politikotako emakumeekin harremanak kateatzera eta gainjartzera eramane zuen, espazio jakin batzuetan bere burua sendotzeko eta pertsonaiari sinesgarritasuna emateko. Horietako bostek kereila bat aurkeztu dute haren aurka, nagusiaren aurka eta Espainiako Barne Ministerioaren aurka, egotzita sexu-abusuen delitua, osotasun moralaren aurkako delitua, sekretuak ezagutaraztea eta eskubide zibikoak erabiltzea eragozteko.

Inork ez dezala pentsa Dani bere kabuz ari zenik. Ez bera, ez agerian utzita, bere bi lankideak, ezta oraindik aktibo jarraitzen duten beste batzuk ere. Kereila jarri duten emakumeak ez dira inozoak, eta ez dute uste Espainiako Justiziari erreparratuko dienik eragin dieten kaltea. Txileko feministen aldarri ospe-

tsua beren haragietan bizi izana eragiten diena: “Estatu zapaltzailea matxo borrokatzaile bat da”.

Izatekotan, ahal den baliabide guztien bidez salatu nahi izatea da guk beti argi izan duguna: estatuak eskrupulurik gabe erabiliko ditu eskura dituen tresnak egungo *statu quo*a aldatzeko edozein saiakera sabotatzeko. Egunetik egunera gero eta jende gehiago konturatzen da sistema bat eraiki dutela beren ilegaltasunak babesteko eta haiei aurre egiten dietenak zigortzeko. Hein handi batean, hori gertatzen da batzuek aurre egiten dietelako haien jokalekuan bertan ere, egiten dutena agerian uzteko.

Hilabeteetako ikerketen ondoren eta argitalpenen ajea igaro eta gero, bi egitatekin geratzen naiz. Lehenengoa, kalteetako kolektibo batzuek errepikatua: “Batzuetan ez gara jabetzen zer eraldaketa-ahalmen dugun”. Badirudi haiek argi daukatela. Bigarrena: hedabide libre eta autogestionatu batek, *Directak*, estatuko agenda mediatikoaren gailurrean sartzea eta eztabaida soziala eragitea lortu du. Beraz, nire ondorioa zera da: orain inoiz baino gehiago konfiantza loturak indartu behar direla eta elkarlaguntzan oinarritutako babes-moduak antolatu behar direla. Marc, Dani, Ramón, nagusiak eta jarraitzaileak: ez dituzue hautsiko eraikitzen ari garen borroka komunitateak. ●

Gorputzaren eta arimaren gehiegizko babesa



TERE MALDONADO
FILOSOFIAKO
IRAKASLEA

Eskola jantokietan elikadura alergia edo intolerantziaren bat duten ikasle zerrendak gero eta luzeagoak dira. 1.800 alergia baino gehiago erregistratu omen dira. Elikaduran behar bereziak dituzten ikasleentzako dietek gora egiten dute urtero. 70eko hamarkadaren amaieran eta 80koan Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko ikasketak egin genituen belaunaldiarentzat fenomeno bat gertatu zen.

Hainbat arrazoi eman da eta hazkunde esponontzial horren zergatia eztabaidan dago. Elikadura-ohiturak, kutsadura eta klima-aldaketa eragileen artean omen daude. Baina gehiegizko higieena ere aipatu da, sistema immunologikoa normaltasunez garatzea saihesten duena. Lokatzetan jolasean zikintzeak, geuk egiten genuen bezala, organismoak defentsak garatzea eragiten du. Geuk, haiketako bokata lurrera erortzen bazitzaigun, hartu, kolpetxo batzuk eman eta jan egiten genuen, milikeriarik gabe. Konturatu zarete gaur umeak ez direla batera mukizu? (*mukizuk* umea esan nahi zuen). Antza, mukiak zintzilik izatea gure gorputzak ingurunera egokitze eta erresistente egiteko lan egiten zuen seinale zen.

Gorputzetik burura pasatzen bagara (burua gorputzaren atal bat da, bai, hitz egiteko modu bat da), antzekoa: nahasmendu obsesibo konpulsiboa haurtzaroen eta nerabezaroen; gogaldartearen desarautze suntsitzailearen nahasmendua; hitzik gabeko ikas-kuntzaren nahasmendua; nahasmendu



PAULA ESTÉVEZ

negatibista desafiatailea; banantze-antsietatearen nahasmendua; eskola-fobia; antsietate sozialeko nahasmendua. Oso lagin txikia da, askoz nahasmendu gehiago daude. Gure belaunaldarentzat ere zerbait guztiz berria. Esparru horretan premia bereziak dituzten ikasleentzako kopurua ere etengabe hazten ari da.

Espezialistek eztabaidatzen dute nahasmendu psikologikoak aurrekaririk gabeko ugaltzearen kausei buruz. Batzuek diote lehen ere existitzen zirela, baina izendatzen ez zirenez, ez zirela identifikatzen eta diagnostikorik eta tratamendurik gabe pasatzen zirela. Kontrako hipotesia ere planteatu da, eta kontsideratu behar dugulakoan nago. Entzun duzue gain-diagnostikori buruz?

Ian Hacking filosofoak hori ulertzeko lagungarri izan dakigukeen zerbait

azaldu zuen aspaldi. Zuhaitz edo astro motak (adibidez) sailkatzen ditugunean eta, demagun, zeruko gorputz bat planeta dela esaten dugunean, objektu sailkatuari berdin zaio. Sailkapena ondo edo txarto egina egon daiteke (agian ez da planeta bat, satelitea baizik, eta erratu gara izendatzean), baina horrek ez du eraginik sailkatutako objektuan, eta bere kasa jarraituko du biraka. Aldiz, sailkatutako objektuak pertsonak direnean, zerbait bitxia gertatzen da: sailkapenek eragina dute sailkatutako pertsonengan. Nerabe bat hiperaktibo gisa etiketatzeak, diagnostikoa zuzena izan ala ez, horrela sailkatutako nerabearen portaeran eragina du. Hackingek dio klase naturalak ez direla interaktiboak, baina gizatiarrak bai, begizta efektua eragiten dutela. Giza-sailkapenekin soziologian "profezia autokonplutua" bezala ezagutzen den fenomeno ere gertatzen da. Iraganen, hiperaktibitatearen etiketa existitzen ez zenean, haur oso mugituak ere bazeuden, baina ulertzen zen, besterik gabe, besteak baino mugituagoak ziren haurrak zeudela. Baliteke hemen "izenak ematen du izana" delako hori gertatzen aritzea?

Pare bat datu gehiago: Espainiako lehen psikologiako fakultatea 1980an jarri zen abian. Horrez gain, badakigu kapitalismo berantiarrean kontua ez dela eskari bat asetzea, hura sortzea baizik. Ez dut esango puzzle osoa bete dugunik, baina irudiaren lerro nagusiak ulertzeko pieza gakoak ditugu. Atera ditzagun kontuak. ●

Enpatxua



**ANE LABAKA
MAYOZ**
BERTSOLARIA

Zea Maysen kantu ezagunaren bertzio bat doinutu dut neure kolporako. *Martxo*a joan da ta jarri diot izena, originaletik gutxi duela badakidan arren. Heldu da apirila, eta zin dagizuet, benetan, nik ez nuela honi buruz hitz egin nahi. Martxo moretuak gainkarga dakarkigu zenbaitzuri. Beste batzuek, akaso, betekada eta indigestioa izango dituzte albo-kaltetzat. Bihotzerrea.

Zorionez, martxoak ez dit irudimena erabat hutseratu. Aurrez esandakoak errepikatzen nator, hala ere, askotariko doinu eta neurrietan esan izan direnak. Amancay Gaztañagak iazko azaroan aldizkari honetan bertan idatzitakoak erreskatatu nahi izan ditut aurrena. Hala dio aktoreak, hitzez hitz, *Zorionekoak* gu izeneko testuan: “Martxo edo azarotik kanpo gure sorkuntzek tokirik ez dutela pentsatzea indarkeria da. Gure lana data mugatu horietara murriztea, emakumeak garelako, indarkeria da”. Onintza Enbeitak, berriz, Ines Osinagak sareetan botatako amuari heldu zion *Berriako Hotelak* iritzi-zutabearen: “Asko dakien lagun batek esan dit martxoan eta azaroan tarifa bikoiztu egin beharko genukeela emakume sortzaileek: hotelek udaran bezala”.

Ezin zuen bestela izan, eta Beatriz Egizabalekin egon nintzen azken aldia

ere martxoan egokitu zen. *Magma* mia bakarrizketa saioarekin ari da herriz herri, eta pozez baina arduraz kontatu zidan urtarrileko eta otsaileko basamortuaren ondoren martxoko egun guztiak –bai, guzti-guztiak, astelehen eta astearteak barne– okupatuta zituela. Galdera bat jaurti zidan gero, irribarrez: “Zuk uste gizon sortzaileek martxoan ere lan egiten dutela?”. Nik ezer esaterako erantzun zion berak bere buruari: “Nik errezeloa daukat baietz. Berdin-berdin, normal-normal”.

Honezkero badakigu jakin udaberrian berez egiten duela kultur eskaintzak gora, *normal-normal*. Guretzako sosa, baina, ez datoz Kulturaren zakutik edo, nahi bada, Euskararenetik –beti ere argi utzita zaku horiek ere zuloz josiak izan ohi direla–. Berdintasun Saitetatik deitzen digute guri, Emakumeen Etxetatik eta Jabekuntza Eskoletatik. Badirudi gureak ez duela bere horretan balio; beti behar duela aitzakia edo arrazoi konkreturen bat.

Mila esker, bihotzez, martxoko antolatzaile feministei. Behar zaituztegu. Kontua da martxotik kanpora ere beharrezko zaizkigula bozgorailuak, plazak eta ogia. ●

Espazioa



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Jai egunen bezperan lagun bat eta biok lortu dugu elkartzeari pote bat hartzeko. Mahaian jarrita gaude, labur bada ere, gure azkeneko kontuez jarduteko. Lagun kutuna dut, baina gure bizitzengatik nahi baino gutxiago egoten gara.

Tar-tar goxoa darabilgu. Gutxira, gazte kuadrilla bat sartu da gu gauden mahaietako gunean. Adinez nagusiak dira, justuan, halere. Denak mutilak. Gertuan jesarri, eta bokatak eskatu dituztela esan du batek, altuan.

Gero, bat altxatu, eta parean dugun telebista erraldoiari bolumena igo dio. Isilean zegoen gailua oihuka hasi da.

Futbol partida baten aurreko zarata itzelak estali ditu gure ahotsak. Lagunari ia ez diot entzuten, komunikazioa gaitz bihurtu zaigu.

Marmarrean hasi naiz; ez diegu ezer esan, ordea. Batetik, ez dugulako enfrontamendurik nahi, eta bestetik, laster ospa egin behar dugulako. Partida ez da oraindik hasi. Ez digute abisatu ere egin. Badakite futbolarik baimena ematen die, eta gizonezkoak izanda, espazioaren jabe ere badirena.

Alderantziz izan balitz, eta gu lako andreok bolumena igo izan balute beste saio mota bat ikusteko, zer gertatuko zatekeen? ●

Zonbiak Euskal Herrian



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Silicon Valley Bank, Republic Bank, Deutsche Bank edo Credit Suisse bankuen gainbeherak ez-baian jarri du interes-tasen igoe-ran oinarritutako banku-zentralen politikak. Sorpresarik ez, banku-zentralen helburua “ekonomia hoztea” baitzen, hots, krisi bat eragitea. Hain zuzen, aipatu banku komertzialen erorketa izan da politika horien lehenengo ondorio zuzena. Eraiste neurtu bat nahi, baina kapitalismoan kontrolak ez du lekurik, eta oraindik ikuskizun dago noraino hel daitekeen bankuen krisi hau. Baina krisi horretaz aparte, agerian geratu da hamar urtez interes-tasak zeroan egonda ere, nazioarteko ekoizpen-sistema egoera erabat kaskarrean dagoela. Kredituaren menpeko den ekoizpen-sistema, krediturik gabe biziraun ezin duena, ekoizpen-sistema zonbia.

Kredituen interesak ordaintzeko nahikoa etekin lortu ezin duten enpresei enpresa-zonbi deritze. Ezintasun horrek zorpetzera behartzen ditu, amaierarik gabeko gurpil zoro batean. Interes-tasak igotzean, enpresak gutxiago zorpetu daitezke eta bankuetan daukaten dirua erabiltzen saiatuko dira (Silicon Valleyn gertatu dena). Baina

Ez du guztia
konponduko, baina
Banku Publiko
batek inbertsioa
bideratu dezake, eta
ekoizpen-sistema
gidatu langilegoaren
mesedetan

berandu baino lehen jausiko dira.

2008ko krisitik irteteko, Erreserba Federalak eta Europako Banku Zentralak interes-tasak zeroraino jaitsi zituzten. Hala ere, ekonomia ez da hobetu, artifizialki biziraun du eta geroz eta zonbi gehiago daude. Ez Silicon Valleyn soilik, baita Euskal Herrian ere. 2018an, Nafarroako eta EAEko enpresen %10,16 zonbiak ziren, orain, %25,11. Eta igoera orokorra izan da: lehen sek-

torean %12,26 ziren, orain %26,21; industrian eta eraikuntzan %9,74, orain %26,43; eta zerbitzuetan %10,28, orain %24,65. Enpresa horien bideragarritasuna zorpetze gaitasunak baldintzatzen du, geroz eta murriztagoa den gaitasuna. Ondorioz, bertan lan egiten duten 197.938 beharginen lanpostuak arriskuan daude, Hego Euskal Herriko bost langiletik bat.

Eta zein da konponbidea? Interes-tasa handiek krisi bat dakarte, baina zeroan egonda ez dirudi ezer lortu dutenik. Arazo nagusia izan da zein jarduera eta enpresa finantzatu behar diren erabakitzeko eskumena finantza-sektore pribatuaren gain uztea, Banku Publiko bat garatu ordez. Ez du guztia konponduko, baina Banku Publiko batek inbertsioa bideratu dezake, eta horrela, ekoizpen-sistema gidatu, ez aberatsen eta espekulatzailen mesedetan, langilegoaren mesedetan baizik. Banku komertzialentzat interesgarriak izan arren, adibidez, NATOrentzako armak, ezinbestekoak ez diren jarduerak finantzatzeari utzi behar zaio, eta baliabide horiek herriarentzat beharrezkoak eta estrategikoak diren jardueretara bideratu, errentagarriak izan ala ez. ●



endanea
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10
www.endanea.com

Gozatu udaberria

Zatoz eta aurkitu zure balkoia, terraza edo baratzerako landare eta produktu guztiak

[Online denda](#)



Orain gure
produktuak
**ADUNA
GARDENEN**
ere



Liburu berria

Prezioa **25 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

Eskaintza berezia

Apirilaren 17tik 23ra

ARGIAkoa eginez gero
jaso etxean opari

ARGIAko kide
bazara **22 €**-an

azoka@argia.eus (+34) **943 37 15 45**

Euskal prentsak ekarritako zenbait kronika gogoangarri (1869-2000)

Kronika hauetan aurkituko ditugu atzerriak eta aberriak, gerrak eta kartzelak, elurrak eta itsaso zakarrak, bidaiak eta erromeriak...

Nekez irakur zitezkeen lekuetatik atera eta liburuan bildu ditu Koldo Izagirrek.





SERORAK

*Herri ondarearen zaindariak,
elizako agintarien jomugan*

Herrietako elizen zaintzaz arduratzen ziren emakumeak ziren serorak eta Euskal Herri osoan ezagunak izan ziren, Erdi Arotik XX. mendera arte. Baina bete zuten funtzioa ez zen berdina izan lurralde guztietan, ezta garai guztietan ere. Emakume haiek publikoki nabarmentzen ziren tokiko komunitateetan eta, horregatik ziur aski, Elizako hierarkiak jarraipen zorrotza egin zien. Beren aztarnak presente daude oraindik hainbat herritako paisaian: serorategi etxeak dira horren adibide.

 JOSU NARBARTE HERNANDEZ / ARITZ DIEZ ORONÓZ



SERORENIA

Jatsuko herria XVII. mendean
Uztaritzetik bereizi zenean, hango
San Sebastian ermita parrokia
bihurtu zen, eta ondoan hilerria eta
serorarentzako etxea eraiki zituzten.

Eskararen erdi eta ekialdeko aldaeretan, *serora* hitzak elizak zaintzeko ardura zuten emakumeak izendatzen ditu. Hiztegiaren XVIII. mendeaz geroztik agertzen da jasota. Mendebaldeko euskalkietan, *beata* eta *sakristana* ordainak erabiltzen dira, gazteleratik eratorriak; frantsesez, aldiz, *benoîte* baliatu izan da.

Baina, gaia sakontzen hasiz gero, errealitate konplexuago bat agertzen zaigu begien aurrean. Herrien antolamendu espazialari, tokiko gizarteetan zeuden botere-harremani eta generolei lotutako errealitate bat. Eta, hari horri tiraka, ustekabeko aztarnak ere aurkituko ditugu, betiko paisaiari begi berriz begiratuz gero.

OSPEA ETA SUSMOAK

Seroren aipamen zaharrenak Erdi Aroaren bukaeran agertzen dira. 1416. urtean, Zumaiako eta Getariako udalek hitzarmena egin zuten Urolako itsasadarren jabetzaren inguruan. Dokumentu horretan “Santiago izeneko eliza” aipatzen da, izen bereko hareatzen; eta, hari atxikita, “seroren etxetxo bat”. Hurrengo mendeetan, seroren presentzia nabarmena da Euskal Herri luze eta zabalean, toki batetik bestera funtzio eta ezaugarri desberdinak zituzten arren. Lapurdiko kostan, adibidez, Pierre Lancre inquisidoreak 1612an idatziz utzi zuen seroren lanen artean elizetako aldareak atontzea zegoela, oihalak garbituz eta sailduen irudiak prestatuz. Beste iturri batzuek protagonismo handiagoa aitortzen diete: haien esku legoke, besteak beste, elizetako giltzak zaintzea, goizetan ateak ireki eta gauetan ixteko; kulturako behar ziren elementu guztiak hornitzea; ofizioetan apaizei laguntzea; kanpaiak jotzea; edota amoinak biltzea eta egunerokoan elizaren kontuak kudeatzea.

Hortaz, emakume hauek, eraikinen zaindari lanak egiteaz gain, agente sozial garrantzitsuak ziren herri nahiz auzotako jendeen eta Elizako hierarkiaren arteko harremanetan. Jakina da herri bakoitzeko serora udalek izendatzen zutela tokiko emakumeen artean, gutxienez XVI. mendeaz geroztik. Batzuetan, alargunak edota ospe oneko emazte helduak hautatzen ziren; beste batzuetan, aldiz, ezkongabeak. Herrien jabetzako etxeetan bizi ziren eta, haien mantenua bermatzeko, soldata bat jaso zezaketen, eta amoinekin osatu.

Seroren bizimodu autonomia eta tokiko komunitateen baitan zuten ospea



BAZTANEN serorategiak egurrezko portiko edo harrizko arkupeen gainaldetan eraiki ziren. Berroetakoa da adibide garbi bat: egurrezko egituradun etxe txikia, eraikuntza berriagoen artean harrapaturik. XVII. mendean Maria Hormaetxe bizi izan zen bertan.

izan ziren, ziur aski, Elizako hierarkiak haien aurka hartutako etengabeko neurrien arrazoi nagusiak. Adibidez, 1540an Iruñeko elizbarrutian egindako sinodo batek xedatu zuenez, serora ororen izendapena apezpikuak berretsi behariko zuten aurrerantzean, “bere pertsona, bizitza, adina eta jokamoldea aztertu ondoren”. Arau hori aplikatuz, 1626an apezpikuak ebazpena eman zuen, Baztango beren ofizioa bete zezaten debekatuz, “harik eta Iruñera bertaratzen ez diren arte, ikuskatuak eta galdekatuak izateko”. Auziaren espediente hainbat seroraren deklarazioak daude jasota; lekukoak ere aurkeztu zituzten, “pertsona printzipalak eta ondraduak” zirela zin eginez eta beren bertutea eta debozioa azpimarratuz.

Hernaniko Zikuñaga auzoan dugu beste adibide bat. 1646. urtean, udalbatzak salaketa jarri zuen Iruñeko apezpikuaren aurrean, Josepa Ollo serorak mezan atabaka pasatzen zuelako, bizi-rauteko sosak biltzeko. Udal agintarien aburuz, ohitura horrek ordena soziala arriskuan jartzen zuen, “bere ondotik beste hainbat etorriko direlako”. Azkenean, serorari bizi arteko errenta bat eman behar izan zioten, bere ofizioa duintasunez burutu zezan.

Ildo berean mintzatu zen Lancre ere; seroren estatus soziala “lizuna eta okerra” zela adierazi ondotik, Baionako apezpikua egoera “zuzentzeko” lanetan zebilela adierazi zuen. Bizkaian, 1617an legez debekatu zen serorek inolako ofizio erlijiosorik gidatzea, hainbat urteko auzi

judizial bat abiarazi zen honen ondotik.

Errepresioak Araba eta Bizkaia barne hartzen zituen Calahorrako elizbarrutian jo zuen goia, 1769an emandako Errege Dekretu batek seroren erabateko desagertzea agindu baitzuen. Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan, aldiz, seroren fenomenoak iraun egin zuen, gutxi-asko, XX. mendera arte; baina ez ziren arraroak izan haien aurkako salaketak –besteak beste, ezkontzatik kanpoko sexu-harremanak egotea izan zen ohiko akusazio bat–.

SERORATEGI, SERORAENE, SERORETXE...

Serorek euskal herri askotako paisaia sozialean izan zuten garrantzia nabarmena da, oraindik ere, han eta hemen beha daitezkeen zenbait aztarna materialetan.

Hilarriak dira horietako bat. Saran, adibidez, honako inskripzioa irakurtzen da serora izandako emakume baten hilarrian: *Hau da thomba herri hunec fincatua 1686 urthean ora den seroraren eta ičanen direnen iarlecu eta sepultura hautatua*. Antzekoak aurkitzen ahal dira Lapurdiko beste herri batzuetan: Getarian, Lehuntzen, Hiriburun eta Senperen, besteak beste.

Beste aztarna adierazgarri bat seroren bizitoki izandako etxeak dira. Serora

Seroren bizimodu autonomoa eta herritarren artean zuten ospea izan ziren, ziur aski, Elizako hierarkiak haien aurka hartutako etengabeko neurrien arrazoi nagusiak

hitzaren hedapen eremuetan, aise identifikatzen dira beren toponimoengatik. Aldaerarik hedatuenetakoa *Serorategia* da; 34 adibide aurkitzen dira Gipuzkoatik Nafarroa Behereraino hedatuta, Bidasoa bailara barne. Bigarren aldaera *Seroretxea* da; beste 34 adibide zenbatu daitezke, batik bat Gipuzkoan –Bizkaian ere adibide gutxi batzuk badiren arren–. Hirugarren aldaera *Seroraenea* izeneko etxeek osatzen dute; 22 adibide daude Lapurdin eta Bidasoa bailaran. Gainera, Nafarroako Pirinioen aldean gaztelera-

ko *Casa de la Serora* aldaera ere agertzen da han-hemen. Dena den, azpimarratu beharra dago serora hitza eskualde jakin batzuetan baino ez dela erabiltzen eta, ziur aski, serora-etxeak beste hainbat eskualdetan ere egonen direla, beste izen batzuekin agian.

Identifikatutako etxeen artean, asko desagertuta edo oso eraldatuta daude gaur egun. Zenbait kasutan, haien kokapena ahozko iturrien eta argazki zaharren bidez baino ez da zehazten ahal; horixe gertatzen da, adibidez, Zumarragako Antion eta Donamartirin. Beste kasu batzuetan, Orioko San Martin ermitaren kasuan bezala, aurriak bertan daude oraindik.

Dena den, oraindik 71 seroretxeren egiturak kontserbatzen dira Euskal Herriko hainbat lurraldetan sakabanatuta. Oro har, elizaren eta hilerriaren ondoan egoten dira, herri bakoitzaren erdigune erlijiosoa eratuz. Hortaz, seroren etxeak ondare-elementu adierazgarriak izan dira herri hauen antolamendu sozial eta espazialean, nahiz eta egun, beste eraikin monumentalagoen itzalpean ezkutatuta gelditu diren sarri. Haatik, eraikin hauek argibide interesgarriak eskaintzen dituzte espazioa antolatzeke moduari, herri arkitekturari edota genero-harremanen historiari dagokionez.




AZKEN ANDERE SERORA Bazkazane herriko San Andres elizako serora izan zen Marie-Louise Cadiou, 1991. urtean zendua. Frantziako Kultura Ministerioak Bazkazane eliza eta serorategia monumentu historiko izendatu zituen urte batzuk geroago, eta Cadiou "Euskal Herriko azken andere serora" izan zela dio ondareari buruzko bere webgunean. Emakume hari buruzko filma laburra egin zuen Gerard Suzartek, 1970eko hamarkadan Pierre Bestiouk grabatutako irudiekin, eta Euskadiko Filmategian gordetzen da gaur egun. Eskuinean, Ziburuko serora baten antzinako irudia.

EKIALDEKO EUSKAL KOSTA: EGURREZKO ETXE TXIKIAK

Ekialdeko euskal kostan aurkitzen diren zenbait serorategik arkitektura berezia partekatzen dute, multzo tipologiko homoginoa eratuz. Neurri txikiko eraikinak dira. Bi solairu eta ganbara dituzte, egurrezko bilbe-egituraz eginak. Alboetako hormak harrizkoak dira, Lapurdin eta Bidasoa bailaran hedatuta dagoen herri-arkitekturaren moldeei jarraiki.

Hondarribiko Madalena errebelean (arrantzale auzoan) dago adibiderik goiztiarrenetako bat. Udal Artxiboko agiriak 1539an aipatzen dute lehen aldiz Seroraren Etxea, eta Katalina Alkaiaga bizi zen bertan. Eraikina 1589an berreraiki zuten, eliza konpontzeko lanen harira. Donibane Lohizuneko arotz bati agindu zioten egurrezko egitura egitea; horrek azaltzen du, ziur aski, etxeak Lapurdiko serorategiekin duen antza handia.

Jatsukoa da paralelorik argienetakoa. Herria XVII. mendean bereizi zen Uztaritzetik; San Sebastian ermita parrokia be-



LEHEN AIPAMENAK

"*Catalina de Alcajaga beata de la Madalena*", irakur daiteke 1539ko Hondarribiko Udal Artxiboan gordetzen den dokumentu honetan. Serorei buruzko aipamenak etengabeak izango dira Erdi Arotik aurrera.

rri gisa berreraiki, eta une horretan gehitu zizkioten hilerrria eta Seroraenia etxea.

Arbonan ere, Andereseroraenia XVII. mende hasieran eraiki zuten, eta Maria Lizarraga izan zen bertako lehen serora, 1651n. Agirietan beste hainbat serora aipatzen dira ordutik: Maria Haranburu (1703), Maria Hayet (1774), Maria Olhatza (1808), Joana Laffargue (1851) eta Maria-Ana Laffargue (1854).

Hiriburuko Seroraenia da beste adibide on bat. 1692ko notariotza-agiri batean jasotzen denez, Maria Salenave izeneko serorarentzat eraiki zuten; hori 1662an hil zela kontuan harturik, etxearen eraikuntza 1640-1660 artean kokatu ohi da. Kasu honetan ere, ia hiru mendez izan ziren seroren izenak ezagutzen ditugu. Nabarmentzekoa da emakume horietako askok urte luzez izan zutela kargua, komunitatean errotutako rol sozial baten adierazgarri.



ARBONA Andereseroraenia deitzen diote serorentzako izan zen herri hartako etxeari. Ekialdeko euskal kostan serorategiek zuten arkitektura bereziarekin bat egiten du honek ere: eraikin oso txikiak, egurrezko bilbez eginak.

Hiriburuko serorak

Hiru mendetako katea

Maria Ibarrarte
1668-1712

Graziana Uhalde
1712-1717

Marion Eskiula
1761-1773

Graziana Beltsusarri
1773-1775

Mariua Lalanne
1775-1785

Maria Ornaletxe
1785-1817

Katalina Irigoien
1817-1847


Dominika Olhagarai
1847-1852

Estefana Oihartzabal
1852-1891

Margarita Baladé
1891-1919

Seroren etxeen aipamenak Euskal Herriko toponimian

Serora hitza eskualde jakin batzuetan baino ez da erabiltzen eta, ziur aski, serora-etxeak beste hainbat eskualdetan ere egonen dira, beste izen batzuekin agian.



BAZTAN: ATERPE GAINEKO ETXEAK

Herri arkitekturari dagokionez ezaugarri bereziak ditu Baztan bailarak, eta hala gertatzen da serorategien kasuan ere. Elizen atarrietako egurrezko portiko edo harrizko arkupeen gainean gainean eraikitako etxeak dira, egurrezkoak zein harrizkoak.

Elbeteko Serorategiak osatzen du adibiderik soilena. Eliza XVI. mendean eraiki zuten, eta baliteke handik gutxira eranstea seroraren etxea ere; 1626an, Joana Azpilikueta zen bertako serora. Egurrezko bilbe-egitura dauka, eta kanpandorrearen inguruan eraikita dago, elizaren hego-mendebaldeko fatxadan aterpe txiki bat eratuz.

Berroetako Serorategia ere egurrezko egituradun etxe txikia da. Kasu horretan ere, XVI. mendeko elizari atxikita dago, atari nagusiaren aurrean aterpea eratuz. 1626an Maria Hormaetxe bizi zen bertan. Egun, eraikin berriagoak ditu bi aldeetan; sakristia eskuinean, eta eskolak ezkerrean. Baliteke jatorrizko serorategia zabalagoa izatea, eta eraikin berri horiek gitean moztu izana.

*Seroren aipamen
zaharrenak Erdi Aroaren
bukaeran agertzen dira,
eta hurrengo mendeetan
haien presentzia
nabarmena izan zen
Euskal Herri luze eta
zabalean*

Amaiurko Serorategia, berriz, Jaso-kundeko elizaren hegoaldeko fatxadari atxikita dago, aterpe luzea eratuz. Joana Salanova da agoriek aipatzen duten lehen serora, 1626an. Hainbat argazkik argi erakusten dute eraikina egurrezko bilbez eginda zegoela, baina, tamalez, XXI. men-

de hasieran egindako lanek guztiz desagerrarazi dute jatorrizko egitura hori.

Dena den, Amaiurko egitura galdu den arren, Arizkunen kontserbatzen da beste bat. Kasu honetan ere, Serorategia San Joan elizaren hegoaldeko fatxadari atxikita dago, luzetarako aterpea eratuz. 1626an Estebenia Oharritzena aipatzen da bertako serora gisa; baina egungo eraikina modernoagoa da, zalantzarik gabe. Alde batetik, etxearen egitura sakristiaren gainean bermatuta dago, eta hori 1736an eraiki zuten Joan Bautista Iturralde funtzionario baztandarraren aginduz. Beste aldetik, serorategi azpiko aterpea arkupe luze baten gisara antolatuta dago, eta horrek Baztango baserri handiak gogoratzen ditu, XVIII. mendean eraikitzen zirenen antzeko moldean.

ONDAREAZ ETA MEMORIAZ

Eliza eta hilerriekin batera, serorategiak lehen mailako erreferentzia izan dira aunitz herritako paisaia. Euskal Herri osoan hedatutako fenomenoak izan da, Erdi Arotik hasi eta XX. mendera arte iraun duena.

Eraikin horien presentziak argi erakusten du serorek zer funtzio zuten herri-tarrek eliz agintariekin zuten botere-harremanen dialektikan; herriek herrietatik hautatutako pertsonak izaki, erreferente sozial gisa ikus daitezke, eta inoiz apai-zekiko kontra-pisu gisa ere jokatu ahal izan zuten. Gainera, emakumeen rol sozial garrantzitsu bat ikusarazten zuen adibide urrietakoa ziren, bizimodu neurri batean autonomoarekin gainera. Fun-tsean, emazte eta etxeko andre gisa emakumeei uzten zitzairen esparru hertsitik kanpo bizi ziren emakumeak ziren eta, ezkongabeen edota alargunen kasuan gertatzen zen bezala, neurri batean zalantzan jartzen zuten ezarritako ordena soziala. Horrek azal litzake, agian, haien gainean etengabe sortzen ziren susmoak eta agintari eklesiastikoez ezarri nahi izan zizkieten mugak; eskualde batzuetan, ia desagerrarazteraino.

Laburbilduz, emakume hauen figurak hausnarketarako bidea eskaintzen du feminismoaren ikuspegitik ere, iraganeko errealitateen irudi konplexua eta dinamikoa erakusten duen heinean.

Iragan horren aztarnak hor daude, zutik, inoren arretarik jaso gabe, sarri gainbeheran. Inoiz ez da berandu historiako istorio txiki horiek jaso, eta elementu hauei dagokien ondare izaera airtortzeko, iraganeko serora haien izena, izana eta memoria berreskuratzeko. ●

EHU-KO TXOSTENA PASAIKO SEGADAZ

“Judizioz kanpoko exekuzio baten antza du”



Joan den martxoaren 22an 39 urte bete ziren Pasaiako badiako hilketatik. “Sarraski” hitza ere baliatu izan da 1984ko hartan gertatua adierazteko. Segadan hildako baten anaia elkarrizketatu zuen ARGIAk duela gutxi, Pello Aizpuru Arbelaitz, eta honek hainbat argibide emanatik ere, artean ez zuen zabaldu nahi izan EHUko talde batek kasuari buruz egindako txostena.

 MIEL A. ELUSTONDO

Pasaiako sarraskiko biktimen senide eta kideek ezustean jaso zuten txostena, egin zenetik hiru urtera. Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzaren lehendakariak barkamena eskatu die horregatik. EHUren Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrak Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egindakoa zen. Txostenak ezongia eragin zien hildakoen senide eta lagunei. Edukiagatik, batetik, eta hiru urtean Jaurlaritzak gordean izan duelako, bestetik. Katedrak ez baitu ez eskumenik ez gaitasunik ikerketarik egiteko, “eskura dauden iturrien argitan ahalik eta informazio gehiena” bildu du kasuaren egungo egoerari buruz. ARGIAk txostena eskuratu du eta ikus daiteke hiru bloke nagusi dituela: egitateen deskribapena, jarduketa judizialaren azterketa juridikoa; eta azken ondorioen atala.

IKERKETA-EGINBIDEAK

Sarraskia gertatu egun berean ikerketa-eginbideak ireki zituen Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiak, eta ediktu bat ere argitaratu zuen, lekukoek edo datuak eman zitzaketan pertsonen agerraldia eskatuz, “baina ez zen lortu inor borondatez aurkeztea”, epaitegian ezer deklaratzeko.

Donostiako polizia-etxeak informazio zenbait bidali zuen epaitegira, polizia-dispositiboa deskribatuz eta enfrentamenduaren bertsioa defendituz. EHUren UNESCO Katedraren txostenaren arabera, ordea, probintziako komisario buruak sinatua eta, dirudienez, Informazio Brigadaren zigelua dakarren atestatuan “ez da jaso gazteek ustez tiro egindako pistola eta metrailadoreari buruzko argazki- edo balistika-txostenik, ezta, Poliziaren bertsioaren arabera, tokiko arroketa eta petriletan ikus zitezkeen jaurtigaien (balen) inpaktuei buruzkoa ere. Operazioan erabilitako

polizia-armak identifikatzeko txostenik ere ez zen egin. Era berean, aurkeztutako polizia-eginbideetatik ezinezkoa da polizia-dispositiboa zuzendu eta/edo bertan esku hartu zuten agenteak identifikatzea, probintziako komisario nagusiak informazio-oharra agintaritza judizialari bidali zionetik harago”. Jaki-na, polizia-etxeak epaitegira bidalitako informazioak ez zuen esaten operatiboa Madrildik zuzendurik zela, Espainiako Poliziaren Informazio Brigada Zentralaren bidez –Gipuzkoako Brigadaren laguntzaz–, eta GEO talde bereziak ere parte hartu zuela. Esateak balio du: operazio berezien talde hori Donostian zen egun batzuk lehenago, Londres hotelean ostatu harturik.

Ondorio samina: 1984ko uztailean, artxibatu egin zen kasua, eta ez zen berri ireki 2000ko maiatza arte, sarraskia gertatu eta hamasei urtera arte, familiak bultzatutako akusazio partikularrak eskaturik; ondoren, Azeptiko Udala ere



Iragan urriaren 28an Donostian egindako bilkura.

ZALDI ERO

herri-akusazio gisa aurkeztu zen, hildako lau lagunetarik bi bertakoak izaki.

EPATEGI-AUZITEGIETAKO BIDEA

2001eko urtarrilean, Joseba Merinok deklaratu zuen –artean zigorra betetzen ari zela, Komando Autonomo Antikapitalistetako kide zela egotzitako zenbait delitirengatik–, Gipuzkoako Instrukzio Epaitegian. Pasaiakoa fusilamendua izan zela azpimarratu zuen.

2001eko martxoan, Rosa Jimenoren deklarazioa epaitegi berean. Tratu txarrak eta torturak salatu, eta amutzat erabili zutela esan zuen. Sarraskia gertatu zenean Pasaiaiko Itsasargiaren pasealekuan zebiltzan bi lekukori ere hartu zieten deklarazioa. Txostenean jaso denez, azken bion lekukotzek “ez dute Poliziaren bertsioa berresten, ezta gezurtatzen ere, eta ez dute azaltzen zergatik atxilotu zuten bikotea [ordubete lehenago detenitu zituzten, eskuburdinak jantzi zizkieten eta lurrean etzanda eduki zi-

“Ez da zentzuzkoa onartzea ezinezkoa dela Pasaiaiko operazioaren agintean egon ziren eta zuzenean edo zeharka parte hartu zuten agintariak zehaztasunez identifikatzea”



EHUren UNESKO Katedraren txostena

tuzten], ez eta operatiboa ez ikusteko erabilitako gogortasuna ere”.

2001eko urrian, Gipuzkoako Pro-bintzia Fiskaltzak bi eginbide egiteko

eskatu zion epaitegiari: alde batetik, polizia-dispositiboan parte hartu zuten agenteak identifikatzea; eta, bestetik, komandoak zeramatzan armei buruzko txostena eta horiei buruzko balistika-txostena eskatzea Poliziari. Armei dagokienez, Poliziak adierazi zuen Instrukzioko 5. Epaitegi Zentralera bidali zituztela, eta txosten balistikoa, berriz, egin eta gero bidaliko zutela epaitegira. Txostenetik ari garela, “...ikerketa polizialak eta judizialak ez dute jasotzen gazteek konfiskatutako armak erabili izanaren zantzurik; argazki-erreportajeak ez ditu jasotzen petrilean eta harrietan ustez utzitako bala-inpaktuak, eta ez dago jasota tiroei buruzko txosten balistikorik egin zenik. Polizia-atestatuan ageri den begizko ikuskapenaren aktan aipatzen den argazki-erreportajea aurkitzeko eginbideek ere ez zuten emaitzarik izan, non Gipuzkoako Identifikazio Brigadako agenteek ‘liskarra gertatu zen lekuaren eta agertutako gor-



Hildakoei Azpeitian egindako omenaldia.

AZPUBURUA SENIAK UTZIA

puen argazki-erreportaje bat' jakinarazi baitzuten". Txostenak honelaxe errematatatu du puntu hau: "Bi dokumentuok berreskuratzeko saiakera ugari egin ziren, polizia ikerketan sartzea lortu gabe".

LAU AGENTE

2001eko abenduan, epaitegiaren eskariari erantzunez, Gipuzkoako Probintzia Polizia-etxeak erantzun zuen, Madrilgo Informazioko Brigada Zentralaren eginbideetan jasota zegoenaren arabera, lau agentek parte hartu zutela Pasaiakoan. Delako polizia-etxeak lau haien zenbaki profesionalak ere jakinarazi baitzituen, "Instrukzioko Epaitegiak inputatu gisa deitu zituen lau agenteok". Parentesi artean esana: 2001eko maiatzean, akuzazio partikularrak eskatua zuen gertakariaren unean Probintziako Informazio Brigadako komisario buruari deklaratzera deitzeko, "idatzi zuen informazio-oharraren edukia argitu zezan eta operatiboan parte hartu zuten agenteak identifika zitzen. Eskaera hori 2001eko irailean eta abenduan errepikatu zen, eta atzera berriz ere 2002ko otsailean". Zortzi urte itxaron behar izan zituzten, 2009ra arte, epaitegiak eskaera hori

"Ikerketa judiziala bultzatzeko jarrera proaktiborik ez izatea argi eta garbi ondorioztatzen da"



EHUren UNESKO Katedraren txostena

aintzat hartu eta Informazioko Probintzia Brigadako arduradunari deitzeko.

2002ko ekainaren 6an, Instrukzio Epaitegiaren aurrean agertu ziren Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak identifikatutako lau agenteak. Deklaratu zutenenez, "inork ez zuen zuzenean parte hartu ikertutako gertaeretan, batzuk Pasaia San Pedron baitzeuden tiroketa-tik oso urrun, eta haietako bat baino ez

zegoen tiroketa gertatu zen harkaitzaren inguruan, baina ez zuen zuzenean parte hartu".

2002ko azaroan, inplikaturako gainerako polizia identifikatzeko eskatu zitzaion, berriz ere, Gipuzkoako polizia-etxeari. Donostiako Poliziak berretsi zuen ez zegoela beste agenterik.

2003ko otsailean, biktimen senideek eskatu zioten Espainiako Poliziari polizia-operatiboaren, tiroen egile materialen eta esku hartu zuten gainerako agenteen nortasuna emateko, eta ohartaraziz, epaitegiaren instrukzio-lana oztopatuz gero, erantzukizun penala izan zezakete. Martxoan, Informazioko Komisaria Nagusiak beti-betiko erantzuna errepikatu zuen: "Ez dago beste daturik".

2004ko ekainaren 24an, Instrukzio 2. Epaitegiaren autoa: ikerketa artxibatzea erabaki zuen, delituen preskripzioagatik.

2005eko apirilaren 18an, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak instrukzio-epailearen irizpidea zuzendu, apelazioa-errekurtsoa baietsi eta ikerketa jarraitzeko agindu zuen, delitua preskribitu gabe zegoela iritzirik.

2005eko iraila. Donostiako 2. Ins-

trukzio Epaitegiaren probidentzia, zenbait froga egitea erabakiz: batetik, dispositiboan agindu zuen agentearen adierazpenak biltzea –hau da, Informaziozko Brigada Nagusiko zerbitzburuarena–, bai eta Donostiako komisario buru ohiarena ere; bestetik, Gipuzkoako komisario buruak lekuko gisa egindako adierazpena jasotzea; horiekin batera, probidentziak autopsiei buruzko dokumentazio guztia ere eskatzen zuen. Gipuzkoako komisarioa 2005eko azaroan agertu zen, eta adierazi zuen gertakariaren garaian ez zegoela Gipuzkoan destinatuta, eta ez zuela esku hartu dispositiboan.

Nahi beste luza liteke katea. Oztopoak agenteak identifikatzeko behaztopagarriak bezainbat dira... Ikerketa ez atzera eta ez aurrera uzteraino luzatu ziren zailtasunak, akusazioek proposatutako ikerketa-eginbideak ukatzeraino.

2014, JOSÉ BONO

2014an, José Bonoren memoria-liburua. Espainiako ministro ohi eta Diputatuen Kongresuko presidente ohiaren hitzak Pasaiako gertakariari buruz “epaiketaz kanpoko exekuzio bat iradokitzen zuen modu batean”, EHUren UNESCO Katedraren txostenak azpimarratzen duenez. Ondorioz, lau hildakoen senideen ordezkariak Bonoren zitazioa eskatu zuen Joaquín Leguinarenarekin batera, Enrique Casas senatariaren hilketa mendekatzeko operazio politiko baten zantzuari buruzko deklarazioa hartzeko.

2015eko uztaila. Instrukzio Epaitegiak eginbide hori ezetsi zuen, eta apelazioan, berriz, erabakia berretsi.

2016ko otsailaren 2ko autoa: epaitegiak prozedura behin-behinean artxibatzea erabaki zuen, eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak ebazpena berretsi zuen urte bereko ekainaren 20an. Ondorioz, ohiko bide judiziala itxi zuen. Instrukziozko 2. Epaitegiak lau giza hilketa-delitu daudela ikusi zuen, aldi berean adieraziz haien egiletza ez zegoela behar bezala justifikatua: “32 urte haue-tan zehar, ikerketa-bide guztia agortu da, eta konplexua izateaz gain, zaila izan da, kontuan hartuta denborak aurrera egin duela eta eskatutako artxiboetan dokumentaziorik ez dagoela”.

2017an akusazioak Espainiako Konstituzio Auzitegiaren aurrean ezarritako errekurtsioak ere ez zuen aurrera egin, errekurtsioa epez kanpo aurkeztu zela agudiaturik. EHUren txostenak beste-

rik lehenesten du: “Hortaz, ez zen gaia- ren funtsaz arduratu, eta ez zuen babes-errekurtsioan salatutako benetako babes judizialerako eskubidearen urraketa ugariei buruzko iritzirik eman”.

2017ko azaroaren 29a. Espainian bide judiziala agorturik, Azpeitiko Udalak errekurtsioa aurkeztu zuen Giza Eskubideen Europako Auzitegian. Ez zen aurrera atera, Azpeitiko Udalak ez duelako “salatutako [Giza Eskubideen Europako Hitzarmena] hitzarmena urratzearen biktima izaera”. Argudioa: Azpeitiko Udala ez dela –eta ez duela ordezkatzeko–, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren estatu sinatzaile edo alderdi kontratugile goren bat.

“[Konstituzio Auzitegiak] ez zuen babes-errekurtsioan salatutako benetako babes judizialerako eskubidearen urraketa ugariei buruzko iritzirik eman”



EHUren UNESCO Katedraren txostena

ONDORIO ETA GOMENDIOAK

EHUren UNESCO Katedraren txostenaren ondorioak erabatekoak dira. Poliziaren jokabideari dagokionez: “Ez da zentzuzkoa onartzea ezinezkoa dela Pasaiako operazioaren agintean egon ziren eta zuzenean edo zeharka parte hartu zuten agintariak zehaztasunez identifikatzea (...) Polizia Nazionalaren Zuzendaritza Nagusiak lau agente baino ez zituen identifikatu, eta horietako bakar batek ere ez zuen parte hartu ikertutako gertakarietan, eta ez zuen inolako informazio baliagarriarik eman erantzuleak identifikatzeko. (...) esanguratsua da bi agintariak ezer jakitea ukatzea edo operatiboan parte hartzen duen beste inoren nortasuna ez gogoratzea”.

Justizia administrazioaz den bezainbatean, berriz, zera dio txostenak:

“Ikerketa judiziala bultzatzeko jarrera proaktiborik ez izatea argi eta garbi ondorioztatzen da”, eta hiru arrazoi sendo ere ematen ditu. Batetik, 1984ko ekainaren 27an, gertakariak gertatu eta hiru hilabete eskasera instrukzioa amaitzea, ilunak argitu gabe. Edo horretarako ahalegin zinezkorik egin gabe. Bestetik, akusazio partikularren eskariz, 1986an Rosa Jimenori eta Joseba Merinori deklarazioa hartu ondoren ere, Fiskaltzak ez zuen ikerketarik egin. 2000. urtera arte geldirik egon zen kasua.

Eta, azkenik, txostenak laburbiltzera jo, eta dio: “Autopsiak, balaz jositako lau gazteek armak erabili izanaren frogarik ez izatea, kontakizun ofizialean dauden kontraesan nabarmenak eta horiek objektiboki zalantzan jartzen dituzten lekukotzak eta datu periferikoak, eta polizia-agintariak gertakarietan parte hartzeko eta/edo antolatzeko ardurazuten agenteen nortasuna azaltzeari uko egitea, bai eta prozesuan eskatzen diren informazioak berandutzeko, oztopatzeko eta ezkutatzeko maniobrak behin eta berriz errepikatzea ere, horiek guztiak judizioz kanpoko exekuzio baten antza duen polizia-operazio baten aldeko egitatezko presuntzioak pilatzen dituzten faktoreak dira”.

Honenbestez, gomendioa, “txosten honen berri ematea”, eta [Eusko Jaur-laritzako] Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko 1966ko Itunaren Giza Eskubideen Batzordean demanda aurkezteko bide-ragarritasuna eta komenigarritasuna aztertzea.

Horrekin batera, txostenaren kopia bidaltzea Arartekoari, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeari, Gogorari, Espainiako Gobernuaren Idazkaritza Nagusiaren organo homologoari, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Espainiako Arartekoari, Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioari eta Nazio Batuetako judizioz kanpoko exekuzioei, exekuzio sumarioei edo arbitrarioriei buruzko errelatore bereziari.

Irati Irazusta Jauregik iragan martxoaren 23an ARGIAN idatzi zuenez, kasua irekita dago orain, eta, irekita dagoenez, “ezin dituzte lau hildakoak estatuaren indarkeriaren biktima izendatu, EAEko legeak ez duelako uzten ikerketa irekita dagoen garaian halakorik egiten”. Bide itsua, noizbait argitu eta burura helduko dena. ●

“ ”

*Lurrari loturiko gaiak
pil-pilean daude,
baina ikusi hutsean
geratzen gara askotan*

Eli Pagola eta Mattin Jauregi Egonarria saio berriaren egileak

Lurrari eta laborantzari buruzko saio berria estreinatu du ARGIAk apirilaren 19an. Eli Pagola (Ereñotzu, 1995) eta Mattin Jauregi (Ikaztegieta, 1998) gazteek gidatuko dute saioa astero. argia.eus-en dago ikusgai.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO

"Egonarria lurrari entzuten dion saioa" da. Orain artean zer esperientzia eta jakintza duzue horretan?

Mattin Jauregi: Lurretik bizitzen saiatzen ari naiz, erlezaintzatik, Balerdipeko Erleak proiektuan. Bertako erle beltza babestu nahian ari gara eta bertako ekoizpena egiten dugu. Orain arte erlezaintza eztiarekin soilik lotu da, baina hainbat produktu berri sortu ditugu: propolioa, polen freskoa, pralineak, kakao kremak... Azukre zuriz egin izan diren produktuetan azukrea ez tiz ordezkatzen dugu. Hainbat komunikabidetan kolaboratzen dugu, ARGIAz gain: Euskadi Irratian eta Tolosaldeko Atarian.

Eli Pagola: Ereñotzuko (Hernani, Gipuzkoa) naiz eta landa eremua gertutik jarraitu izan dut. Gure etxean inor ez da lurretik bizi izan baina elikatzeke beti izan ditugu abereak, baratzea, basoa... Ikasketaz, Energia Berriztagarrien Ingeniaritza

titulua dut. Garapenkeriari aurre egiteko militatzen dut eta trantsizio ekosoziala interesatzen zait, horri loturiko saioa egiten dut Naiz irratian: Gelditu makinak.

Saio hau abiatu aurretik ere ezagutzen zenuten elkar...

M. Jauregi: Ikaztegieta ondoko auzo batego bertso saioan ezagutu nuen Eli.

E. Pagola: Nik Mattin korrika ezagutu nuen.

Mattin, zuk proposatu zenigun bideopodcast bat egiteko aukera...

M. Jauregi: Jendea hizketan sumatzen nuen, lehen sektorean zer arazo dauden eta bat eta beste... Hortik abiatuta, eta ARGIA artikuluak idazten hasia nintzen, saio hau egitea aukera ona iruditu zitzaigun, dauden arazoak ikusarazteko.

Eli, "Egonarria" hitza zuk bota zenuen, izena pentsatzen ari ginela.



Zer esan nahi du zuretzat?

E. Pagola: Landa eremuko jendeari entzun izan diot gehiago egonarria izatea, balio moduan. Patxada da, baina baita ere bada egoten jakitea, hor egotea. Inguruan gertatzen denaren berri eta kontzientzia izatearekin lotzen dut batez ere. Saioa hartzen joan den izaerarekin lotuta dago, izen egokia iruditu zitzaidan.

Gazteak eta landa eremuan bizi zaretenak. Nola bizi duzue landa eta hiriaren arteko harremana?

E. Pagola: Landa eremuan bizi eta militatzen dut, bestelako bizitza eredu baten eta bestelako sistema antolakuntza baten bila. Ikasketa guztiak eremu urbanoan egin ditut eta eguneroko bizitza ere eremu urbanoan oinarritzen dut. Natural mugitzen naiz egunerokoan eremu batetik bestera, bieran ditut lagunak, ez dago banatuta nire kasuan.



Motzean

Egonarri handiko pertsona zara?

Mattin Jauregi: Baietz uste dut.
Eli Pagola: Hori proiektatzen dut.

Zer ematen dio besteak saioari?

M. Jauregi: Elik patxada.
E. Pagola: Mattinek galderak barrutik egitea.

Zure laneko zer erreminta ekarriko zenuke saiora?

E. Pagola: Entzuteko kaskoak.
M. Jauregi: Arkatza.

Zein da laneko zure momenturik gustukoena?

M. Jauregi: Lana erraz doanean, ez denean forzatua.
E. Pagola: Kafearena.

Saioa bukatzen denean zer egin behar dugu dekoraziorako erabili dugun lasto horrekin guztiarekin?

M. Jauregi: Siesta on bat.
E. Pagola: Bigarren denboraldia prestatu.

M. Jauregi: Familia baserritik dator eta txikitatik izan dugu ohitura asteburuak baserrian emateko. Aiton-amonaz geroztik inor ez da bizi izan baserritik, baina interesa beti izan dut: bere garaian horri buruz ikasteko gogoia ere izan nuen baina azkenean fabrika hasi nintzen lanean (dagoeneko ez nabil fabrika). Tolosara joaten gara larunbatero saltzera. Beti izan naiz oso azoka zalea, gustatzen zaidalako zuzenean entzutea zer den salduko didatena. Orain beste aldetik bizi dut, barrutik salduz, eta polita iruditzen zait, aberasgarria.

Herria eta landa ez ditut aparte ikusten, nire inguruko harremanentzat ere landa ez da ezezaguna, nahiz eta horietako batzuk ez diren landan bizi.

E. Pagola: Euskal Herrian hiriak txikiak dira eta landa distantziaz oso gertu dago. Nik uste hiriko jende ia denak izango dituela lagunak landa eremuan. Lan baldintza aldetik badago gutxietsia landa

eremua, eta elkarren beharra dute: hiriak ezingo du jan bere kabuz, eta hirian egiten diren jarduera guztiak landa eremura zabalduko bagenitu, ez dakigu zer bizimodu sortuko litzatekeen, landa eremua idealizatzearekin lotuta dago lan bereizketa.

Lurrari buruzko gaiak pil-pilean daude?

M. Jauregi: Bai, pil-pilean daude. Etorkizuna diren, hori jada ez dakit.

E. Pagola: Urgentzien garaian sartu gara, klima aldaketa eta larrialdi ekologikoa medio dena da urgentea, dena ikasi behar dugu orain... Boladaka funtzionatzen du.

M. Jauregi: Hain azkar bizitze horren ondorioz, ordea, ez dakit gai hauei duten garrantzia ematen diegun. Gaia pil-pilean dagoela ikusten dugu, baina ikusi hutsean geratzen gara askotan, ezer egin edo aldatu gabe.

Etorkizunari begira, Lurraz eta lehen sektoreaz mezu etsigarriak zabaltzen dira. Zuek nola begiratzen diozue etorkizunari?

M. Jauregi: Etorkizuna hobetzea zail ikusten dut, uste dut okerrera jarraituko duela. Baina prozesu hori geldotzea bada zer bait, ez daitezela oraingo abia- dan egin kalte handi eta txikizio horiek. Orain baino gehiago neurtu daitezela gauzak.

E. Pagola: Oraingo patroiarri jarraituz gero baldintzak okertuz joango dira eta gure ekintzen arabera izango da intentsitatea. Hala ere, uste dut garaiz gabil- tzala txip aldaketa egiteko eta hobeto- xeago bizitzeko. Horretarako antolatu egin beharko gara eta bizipen mordoa entzun beharko dugu, hori ere bada Egonarrria saioaren helburua. Aldaketa handi xamarrek egin beharko ditugu, baina badugu aukera ttiki bat hobeto bizitzeko. ●

“ ”

“Ukrainarren garaipenekin pozten nintzela konturatzean erabaki nuen Errusiako Armada uztea”

Nikita Chibrin

Nikita Chibrin Espainiako Estatuan bizi da egun, baina Ukrainako gerra hasi zenean, inbasioan hartu zuen parte. Lehen lerroan egon ez bazen ere, desertore bilakatzea erabaki zuen eta bere esperientzia partekatu du.

  AITOR ASPURU SAEZ

Zer egiten zenuen gerra hasi baino lehen?

Lauzpabost urtez ikasi nuen Txinan, baina nire ikasketak profitatu ordez, klubetan eta diskotekatan parrandan izan nintzen. Denbora xahutu nuen, ez nuen ezer burmuinean, oso gazte nintzelako. Orain maiz damu naiz. Hori dela medio, informatikari militar moduan bukatu nuen Errusiako Armadan. Nire unitateko informatikaria nintzen, ez nuen inolako trebakuntza militarrik.

Eta Ukrainako inbasioa hasi zenean, non zinen?

Urtarrilaren 16an Bielorrusian geunden, kanpaleku militar batean. Ez genuen ezer egiten, jan, lo egin, sare sozialetan bitartez hitz egin... Otsailaren 24an, dena hasi zenean, gure komandanteak esan zuen: “Oso ondo, prestatu borrokarako”. Orduan nik esan nuen: “Nola? Inondik inora. Ni ez naiz borrokatuko”.

Nik ez dut inor hilko, jende orok merezi du bizitzea eta inork ez du eskubiderik beste bati bizitzea kentzeko. Gerraren kontra nago erabat. Eta azkenik, ez nago prest hiltzeko ezergatik. Adierazi zidaten hori esateak arazoak sortuko zizkidala eta espetxean amaitu ahal nuela. Nire unitateko kideak hasi ziren metrailetak kargatzen eta nik ez nekien zer egin. Igo gintuzten ibilgailu militar berezi batera eta nire asmoa zen martxan botatzea, baina atea ez zen irekitzen. Matxuratuta zegoen, ezin nintzen atera. Nire ideia zen korrika joatea Poloniaraino eta asiloa eskatzea.

Orduan Ukrainan amaitu zenuen?

Bai, komandanteak ireki zuen atea eta esan zigun: “Ongi etorri Ukrainara”. Txernobilgo eremuan geunden! Jende guztia hasi zen esaten ez ukitzeko ezer, erradioaktibitatea baitzegoen. Bi edo hiru ordu igaro genituen han, gero au-

rrera egin genuen eta otsailaren 27an Bukharin hirira heldu eta han sartu ginen.

Ukrainako Armadako bonbak hasi ziren erortzen gure inguruan. Lehen aldia izan zen gerra benetan ikusten nuela. Korrika egin behar izan genuen.

Handik Lipovkara bidali gintuzten martxoa osoan eta gero ezezaguna zaidan beste eremu batera. Garai horretan komandante batek esan zidan ni ez nintzela gizon bat, gerran ez nuelako parte hartu nahi. Saiatu zen ni ezerezean uzten mentalki eta mehatxatu ninduen, atera zuen arma eta zin egin zidan ihes eginez gero, hilko ninduela. Inork ez zuen ezer esan, jende orok babestu zuen komandantea. Hortik aurrera soldadu guztiek iraintzen ninduten egunero.

Zerbait gehiago gertatu zen?

Eman zizkidaten lan umiliagarri guztiak, garbitzailea eta sukaldaria. Ni



nintzen ardura okerrenak zituena. Egia esanda, bizitako guztiak gorrotoz bete nau Errusiaren aurka.

Noiz erabaki zenuen ihes egingo zenuela?

Konturatu nintzen armada ukrainarraren garaipenek pozten nindutela eta erabaki nuen hanka egingo nuela. Martxoaren amaieran itzuli ginen Bielorrusiara eta han saiatu nintzen ihes egiteko modua bilatzen. Hasieran komandanteak esan zuen etxera joango ginela, baina apirilaren 3an kontrakoa komunikatu zigun. Esan nion nik ez nuela gerran parte hartu nahi; ukabilkada eman zidan eta konortea galdu nuen. Gero esan zidan berriro errepikatzen banuen ihes egin nahi nuela, beste behin utziko ninduela konorterik gabe. “Ados, ulertu dut”, ziurtatu nion.

Handik Errusiara joan ginen, Belgrodoko oblastera. Hor saiatu nintzen mo-

dua topatzen desertore izateko, baina komandantea nire telefonoa hartu eta konturatu zen. Errieta egin, sakelakoa kendu eta soldadu bat jarri zuen nire atzetik etengabe.

Gero, Ukrainara bidali gintuzten berriro, Kherson oblastera –ez hirira–. Iziumeke basoetan ere egon ginen, apirilaren erdialdean eta maiatzaren hasieran Buhaievkan ginen. Gure lana zen horniketa bermatzea; janaria eta abar garraiatzen genuen. Inoiz ez naiz lehen lerroan egon, nire unitatea beti erretaguardian egon zen.

Orduan ez duzu gerra ezta inolako krimenik ikusi.

Basoetan geundela, ikusi nuen bi militar ukrainar harrapatu zituztela. Bat soldadua zen eta eraman egin zuten, besterik gabe. Bestea, orde, ofiziala zen eta hasi zen errusiarrak iraintzen. Hiru soldaduren artean eraman zuten zuhaitz batera

eta agindu ziguten joateko, ez baitzen gure eremua. Gero ikusi nuen odol apur bat zuhaitz horretan, baina ez dakit zer gertatu zitzaion ofizialari, agian atxilotuta dago, ez dakit.

Ukrainarrekin bizi izan zinen atzeguardian, nolakoa izan zen harremana?

Gure elikagaietatik txokolatea ateratzen nuen eta umeei ematen nien, ez zezaten pentsatu errusiarren gatibu zirenik. Ahal nuenean galdetzen nien ukrainarrei nola egin ahal nuen hanka hortik, baina ez zekiten.

Espainiako Estatuan ezagutu dut neska ukrainar bat eta kontatu dit familia ukrainar batek soldadu errusiar bat ezkutatu zuela. Euren etxean agertu zen eta eskatu zien ezkutatzeko, ez zuelako inor hil nahi eta ez zuelako gerran egon nahi. Militar errusiarrek etxea arakatu zutenean, esan zieten familiakoa zela.



Errusiako Armadaren publizitatea San Petersburgoko kaleetan.

Noiz egin zenuen ospa?

Ekainaren 16an tren baten barrura egin nuen salto eta ezkutatu nintzen. Errusiarra heldu nintzen eta hiru hilabetez egon nintzen ihesaldia prestatzen. Moskutik igaro nintzen, Bielorrusiatik, Georgiatik, Kazakhstanetik, Uzbekistanetik, Qatarretik, Tunisiatik, Marokotik eta Espainiako Estatura heldu nintzen, azkenean.

Errusiako Estatuak zerbait egin al du zure aurka?

FSBko bi agentek –lehen KGB zena– nire emazteari galdetu zioten ea ote zekien ni non nengoen eta berak erantzun zien ezetz, benetan ez zekielako non nenbilen. Errusian egon nintzen garaian ez nion ezer esan inori, gerraren aurkako nire jarrera adierazi izan banu, ez nintzatekeen gai izango ihes egiteko. Norbaitek galdetzen bazidan, nik plantak egiten nituen eta esaten nuen zein maltzurak ziren ukrainarrak. Hiru hilabetez egon nintzen ezkutatuta ihesaldia prestatzen, ahalik eta seguruen izateko.

Harremana izan duzu zure unitateko kideren batekin?

Ez, atzeguardian ezagututako soldadu

batzuekin hitz egin dut, esateko Espainiako Estatuan nagoela eta animatzeko armada uzten, baina desertorea naizela erantzun didate. Nik galdetu diet ea Ukrainan hil nahi ote duten, baina berdin zaiela diote. Ezin dut ulertu. Nik bezala lan zikina egiten zutenez, uste nuen nire egoera berean zeudela, baina argudiatzen dute bere familia Errusian dagoela eta ez dutela utziko herrialdea.

Zer eragin du desertorea izateak zure familian?

Nire gurasoek Vladimir Putin babesten dute. Lau urteko nire alabak beti esaten dit itxaroten ari dela nire itzulera, baina nik erantzuten diot hobe dela bera hona etortzea.

Eta zu zara ezagutu duzun desertore bakarra?

Belgrodon egon ginenean soldadu batek kontatu zidan beste batek armada utzi zuela. Joan zen fiskaltza militarra eta sinatu zuen dokumentu bat zeinean adierazten zuen armada utzi nahi zuela. Ni txundituta geratu nintzen. Jakin izan banu aurretik, bide hori hartuko nukeen, baina garai horretan banuen beste soldadu bat gainean ni kontrola-

tzeko eta ez nuen aukerarik. Gure komandanteek behin eta berriro errepi-katzen zuten armada uzteak kartzelara joatea ekarriko zigula, baina, antza, ez da horrela, badaude moduak egiteko.

Nolako izan zen Espainiako Estatura heltzea?

Madrilgo aireportuan erakutsi nuen nire hegaldi txartela –Kuba zen helmuga–, eskuak buruaren atzeko partean jarri nituen eta esan nuen errusiarra nintzela eta asiloa eskatzen nuela. Segurtasunak esan zidan, “ados, jaitsi eskuak, ez dago arazorik”. Errepikatu zidaten gauza bakarra izan zen, Kubara joaten zen hegazkina atera baino lehen, nire azken aukerazela erabakitzeko hara joan nahi nuen edo asiloa eskatu nahi nuen. Nire hasierako asmoa zen Ameriketara joatea, baina ez nuen diru nahikoa bidaiarako.

Espainiako Estatuan Ukrainaren aldeko manifestazioetan parte hartu duzu.

Bai, eta lortzen dudanean kablea nire mikrofonorako, Youtube kanala eta Chatroulette sare soziala erabili nahi ditut errusiar faxistak, gerra hau babesten dutenak, zirikatzeke. ●

ENE BIOLETA MAITEA



GARBIÑE LARREA
@GAR2LARREA

Dantzan egizu martxea" dator kit bihotzeko fonotekatik bide bazter itzaltsu eta hezeetan *Viola odorata* loratzen ikusitakoan. Ez dakit Oskorrik *Violetaren martxa* kantan kantatu bezala berdin apurtuko ote dituen euskaldun jendeak katea eta zapata pare, ez dirudi samurra dagoenik. Hori bai, katea apurtzea egokitzen zaigunerako burdinak eragindako azaleko zauri errea eta zapata pare apurtzeak sortutako oinetako mina baretzeko eta sendatzeko loretxo txiki leun hau erabil dezakegula, hori bai, hori esan dezaket.

Biola-lorea, brioleta edo sagu-belarra ere badu izena nahiz gehienok izen botanikoaren *odorata*-ri erreparatzen diogun. Izan ere, usaintsua da, usain hauskor bezain iheskor eta preziatu horren bila ibili ohi gara bai edari hartzitua egiterakoan, bai ukendua edo goxokiak egiterakoan. Lurringintzan eta gozogintzan estimatua da Europa guztian eta horregatik sendabelar gisa duen balioa atzean gelditu dela dirudi; adierazgarria da sendabelar modura ez dela merkaturatzen. Zuetako askoren etxean amonak Lourdeserako peregrinaziotik ekarritako lore erako karamelu more haien bidez ezagutu zenuten lorea, ziur naiz. Hala, bihotzeko aromatekan amonaren karamelua izango da beti gutako askorentzat.

Loreak erabili izan ditugu, nahiz hostoekin eta sustraiekin ere badiren hainbat erabilera. Seguratasunari eta eraginkortasunari erreparatuz gero loreak dira gomendagarriak, printzipio aktiboetan aberatsenak ere loreak direlarik. Bioleta zuriak eta horiak ere badira baina gure artean era basatian jaiotzen dena morea izan ohi da, more oso iluna askotan. Garai honetan kolorea ahultzten hasiak eta bakantzen hasiak izango ditugu, berez udaberri hasierakoak izanda ere negu erdi alderako loratzen direla ari garelako ikusten.

Kanpo aldean azala eta barruan mintzak baretuko dizkigu beti. Berdin dio infusiotan, tintura eginda edo oleato zein ukendutan darabilgun, hori du muzilagotan aberatsa izateak, narritadura oro baretzeko gaitasuna baduela. Gurinarekin nahastuta gosaltzeko edo entsaladan janda urdailerako baregarri suertatzen da, probatu duenak badaki ondo. Oraindik ere loretan ikusten badituzu eta eskukada pare bat lore biltzen baduzu, lehortu eta eduki eztarria

urratzen zaizunerako. Halakoetan, ondo ezkontzen da plantainarekin (*Plantago lanceolata*) eta malbarekin (*Malva sylvestris*), infusiotan.

Bitxikeriei eta kondairei buruz sekulako dokumentazioa daukagu, dozena bat artikulutarako eta, are, tesi baterako ere emango luke. Izaera erlijiosoa duten bi daturekin amaituko dut, Aste Santua eta Ramadana apirilean ditugularik: Mahomaren lore kuttunenetakoa zela dago jasoa eta Kristoren gurutzeak egin zuen itzalean bioleta landareak zeudela ere badio kondairak. Hain zuzen ere, Kristoren oinazearen lekuko fidel izanik markurtu egin omen ziren loreak. Aukeran, Oskorriren *Violetaren martxa* kantuaeren alaitasunarekin agurtuko zaituztet. ●



DANI BLANCO / ARGIA

EUSKAL HERRIKO AGENDA

APIRILAK 22 / MUNGIA

Jakoba Errekondoren hitzaldia, **Landara Azokan**.

APIRILAK 28 / KORTEZUBI

Izei ukendu baltsamiko ikastaroa emango du Garbiñe Larreak, **18:30ean udaletxean**.

APIRILAK 28 / MARURI-JATABE

Jakoba Errekondoren hitzaldi-kontsultategia **18:00etan Kultur Etxean**.

MAIATZAK 3 / URNIETA

Garbiñe Larreak sei sendabelar aurkeztuko ditu baita emakumeek historian gaiaz izan duten jakintza ere. **18:30ean Jabekuntza Eskolan**.

MAIATZAK 9 / GATIKA

Jakoba Errekondoren hitzaldi-kontsultategia, III. Elkartrukaketa Azokan.

UDABERRIA POZEZ ETA BERO



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Udaberriari atea irekitzen zion apezak. Aste santuaren ospakizunekin (ospa egiteko modukoak) udaberriko grinak eta odolaren irakinaldiak baretzeko adinako bijilia, barau eta beldurtzeko moduko prozesio beltzak antolatuta. Prozesioetako txano puntadun edo kapiroeteetan ezkatuta izutzen dute udaberriaz gozatu nahi duena. Tontolapikotzat gaituzte. Ordu-rako ederki dantzatu gara udaberriaren sarreran, udaberria irekitzear dagoen pipitta guri gozo bat denean; tunturro edo txano puntadun eta guzti baina aurpegia bistan, ihautetean, joare eta guzti, baita Oriako sorgin dantzetan ere. Aldiz, udaberria zailtzen ari denean dator erlijiozaleen aste hori. Garai zahar bateko ospakizunak zanpatzeko eta oinkatzeko, udaberriari sartu eta lehen ilargi beteari itxaroten diote; hortik aste horren mugikortasuna. Nemesio Etxaniz Aranbarri apaiz azkoitiarrak honela azaldu zuen udaberriaren eta elizako intsentsu kiratsaren artekoa bere 1967ko *Lur berri billa* liburuan: “Aldare ederra urre-argitan / udaberri da lorez; / intzentsuaren lurrin gozoak / usaitu gaituzte gaiñez”.

Apezak baino lehenago dakarte udaberria apez-belarrek: apez-belar nerbiozuriak (*Arum italicum*) eta apez-belar pikartak (*Arum maculatum*). Martxoero azaltzen dute lurpeko erraboiletatik lorearen gara motza; haren muturrean xut-xutik agertzen da kalaren (*Zantedeschia aethiopica*) eta bela zuriaren (*Spathiphyllum wallissi*) loreen tankera duen ezpata edo kordotx formako lili zuri berdexka. Urtero, hilezko agertzen da eder asko.

Udaberriko gau freskoak berotzera dator apez-belarra edo suge-belarra, aspal-di asmatua du berokuntza sistema. Lorea handia da eta kono forma du. Bere barruan lore emankorrek eta ile antzekoz osatutako itxiturak ditu. Usain erakargarria du intsektu polinizatzaileak erakartzeko eta,



harrigarriena, lorearen kordotxak eguzkiaren beroa bildu eta konoaren barruan tenperatura igotzea lortzen du. Nola ez zaizkio ba intsektuak barneratuko: polena, usain gozoa eta berokuntza sistema. Iletxo horiek ez diete alde egiten utziko eta polinizazioa bermatuko da. Ondoren lorearen ezpata ihartuko da, usaina desagertu eta beroa joatearekin batera kartzela ixten duten iletxoak ahuldu eta intsektuek alde egingo dute. Kono barruko loreek emango dute “suge-jana” edo “suge-arto” esaten dioten fruitu multzoa: muturra koxkor gorritz jantzitako gara. Dena pozoitsua, koxkorrek eta hostoak. Lurpeko erraboila ere bai baina ia erabat fekula da eta jateko modua egin daiteke: zuritu eta beratu eta gero labean erreta edo nola-hala berotuta. Berotzeak desegiten du pozoia. Bada erraboila berotu beharrik gabe gustura asko jaten duenik: basurdea. Udaberria usaindu orduko apez-belarrak lorea azaltzen duenean badaki haren oinean lurra uxartu eta zer gutizia azalduko zaion: apezaren erraboilak. ●

EGURA



JOSEBE BLANCO
@HAUSNARREAN

Ezezagunekin ohikoa den bezala, eguraldiaz arituko naiz. Hizpide neutroa delakoan eta anonimotasuna mantentzearen erabiltzen da eguraldia. Halere, neutrotzat jotzen dugun horretaz hitz egitean ere, geure buruaren berri ematen diogu solaskideari, nahi gabe.

Ondokoak “zer eguraldi ona!” edota “hau eguraldi petrala!” esatean, munduan egoteko duen eraz ari den bezala, erantzunak ere agerian uzten du solaskidearen soslai.

Inork ez du, ordea, dagokion galdera egiten –ezta bere buruari ere–: zertarako, baina? Terraza batean egoteko? Patatak ereiteko? Mendira joateko? Baratzean rotabato-rea pasatzeko? Hondartzara joateko? Belarretan aritzeko?

Bakoitzak eguraldia ona ala txarra dela erabakitzeo arrazoiak izango ditu, barrubarruan; kontua da inork ez duela zalantzan jartzen eguraldi onaz ari denean eguzkiari ari garela, eta euria, hotza eta abarrak ezkatatzen direla txarren lainotan.

Gutxi aztoratzen gara neguko zenbait egunetako udaberriko tenperaturarekin, eguraldi ona omen. Neguko ohiko elurteei denborale deitzera pasa gara. Eta lehorte betean, egun eguzkitsuari giro ederra deitzen diogu.

Intsumisoa naiz. Ondorioak neure haragitan bizi ditudalako, akaso. Izango da orain dela aste batzuetako tenperatura goxoak –hego haizeak lagunduta– belarretan hazkuntza moteldu duelako. Edota saha-

LDIAZ

tsak kimuak askoz lehenago erakutsi zizkigulako. Dena den, berandu baino lehen, denoi azalduko zaizkigu ondorioak, lurrarekin eta animaliekin bizi garenoi lehenago; geroago, hiri-eremuko lagunei.

Iazko lehorreak behartu zituen abeltzainak negurako gordeta zuten bazka uztailan ematen hastera. Nekazariak ere ereindako soroak basamortu bilakaturik ikusi zituzten. Baratzezainek letxugarik gabeko uda ezagutu zuten. Etxean ere eguraldi on haren lorratza presente dugu, gaur gaurko.

Orain dela bi urte erositako sail batean –pinudia bota berri-, belar-hazia zabaldu genuen, udaberrian. Iragarritako zegoen arren, ez zuen euririk egin; hau da, eguraldi txarra izan genuen. Egun, sail hori biluzik daukagu; belar apur bat dago izkinen batean, putzuak egin ziren tokietan.

Urte hasieran Rafaren deia jaso ohi dugu. Aurten olio gutxiago, askoz gutxiago, egokitu zaigu: hirurogei bat litro jaso beharrean, hamabost. Ohikoa den uztaren herena baino ez du jaso-eta.

Aspaldikoak dira pazientzia eta etorkizuna; berehalakotasunak baztertu ditu, eta gu bahituta gauzka. Eguraldi onak ematen digun berehalako gozamenen itotzen ditugu horrek ekarriko dizkigun etorkizuneko ifrentzuak.

Eguraldiaz ari nintzelakoan, irakurle. ●

HAZIGILEEN TOPAKETAK

“LEGEA HAZI ENPRESA HANDIENTZAT DAGO EGINA”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Badira barazkiak lortzeko baino, horien haziak ateratzeko lantzen diren baratzeak. Gurean, duela zenbait urtetatik martxan dagoen Aleka proiektua da hazi ekologikoak ekoizten eta merkaturatzen dituen egitasmo nagusia, baina Euskal Herriatik kanpo, Espainiako Estatuan barna, badira antzeko proiektu gehiago ere. Horietako zazpi elkartu ziren martxoaren bukaeran Gipuzkoan, Cristina Eneako Hazierak eta Alekak antolatutako hazigileen lehen topaketetan. Mahai-inguru batekin hasi zuten asteburua, eta ondoren, barne mailako ekimenekin jarraitu. Proiektuon lana ezagutzera ematea eta kideen arteko sarea bultzatzea izan dute helburu topaketek.

HAZIAK EKOIZTEN ETA MERKATURATZEN

Euskal Herriko Aleka proiektuaz gain, Madrilgo La Troje, Mallorcako Associació de Varietats Locals, Aragoiko Hazien Sarea eta Kataluniako hiru ekimen –Les Refarades, Esporus eta Eixarcolant– elkartu ziren lehen topaketetan. “Horietako zenbait, hazien sareetatik oso gertu sortutakoak dira, beste batzuk ez, baina guztiak haziak ekoizten eta merkaturatzen dituzte”, azaldu du Marta Barba Gassó topaketetako partaideak. Horrez gain, guztiak irizpide agroekologikoen arabera lan egiten duten proiektu txikiak dira. “Talde gehienek jarduna, gainera, tokian tokiko barietateei oso lotua dago”, gehitu du kideak.

Proiektu bakoitzaren funtzionamendua ezagutzera izan da topaketen helburuetako bat, beste aldeei ideiak emateko eta zailtasunei eta oztopoei aurre egiteko dituzten estrategiak partekatzeak. “Azkenean, eguneroko lanean oso bakarrik daude haziak ekoizteko proiektu txikiok,



@CRISTINA_ENEA

legedia enpresa handientzat egina dagoelako, eta traba asko topatzen dira bidean”, gehitu du partaideak. Esperientziak elkartrukatzetik atera duten ondorioetako bat da legedia estatu mailakoa izan arren, herrialde bakoitzak legea bere modura aplikatzen duela. Izan ere, toki batean hazien merkaturatzean pausu zehatz batean inongo arazorik izan ez duten bitartean, beste toki batean etengabeko borroka izaten da. Zentzu horretan, aurrera begira elkar babestea da taldeen asmoa.

IKUSIZ IKASI ETA PARTEKATU

Alekaren Beizamako instalakuntzara bisita izan zen asteburuko ekimenetako bat. Bertan, hazien ekoizpenari eta merkaturatzeari lotutako kontu praktikoez hitz egiteko aukera izan zuten hazigileek: “Bakoitzak zorrotan nola biltzen duen, edo etiketatzea nola egiten den... lanak errazteko ezagutzak eta estrategiak partekatu genituen bertan”, azaldu du Barbak. Gunean bertan, tresnak eta makineria aurrean izanda, topaketetan ateratako ideia asko zuzenean ikusteko eta aipatzeko aukera izan zuten.

Europa mailan egin izan dira hazigileen topaketak, eta horiek eredutzat hartuta pentsatu zuten estatu mailako topaketok antolatzea. Norbere herrira poltsa bete indar eta ideia bueltatu direla azaldu dute. Aurrera begira, elkarlanarekin eta harremanarekin jarraitzeko asmoa dute. ●

LIBURU BERRIA

Atzera begira aurrera egiteko

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Euskal prentsan 1869tik 2000. urtera bitartean argitaratu diren kronika gogoangarriak bildu ditu Koldo Izagirrek ARGIArekin kaleratu berri duen liburuan. *Zaldi bat ihes garrezko zelaian*, hala du izenburu. Asko ezagutzen ez ditugun kronikarietatik luma ezagunetara, urtetan artxibategietako ilunpean egon den testu edo mordoxka bat berreskuratu digu egileak.

Beste herri eta kultura askotan beren kazetaritza lan fundazioz gozatzeko aukera duten bezala, euskaldunok ere material hau eskura izango dugu aurrerantzean, egin gabe genuen lan hau Izagirrek eta ARGIAk beren gain hartzeari esker.

Badira ia hamabost urte ideia euskarri fisikora ekartzeko asmoa piztu zela. ARGIAk bere 90. urteurrena zuen ospatzen, 2009 korapilatsu hartan mendea betetzera helduko ez zenaren beldur, unea gozatu eta kandelak piztu genituen; baina 104ak ere egin behar izan ditu bilduma osatzeko. Kronika hauetan aurkituko ditugu atzerriak eta aberriak, gerrak eta kartzelak, elurrak eta itsaso zakarrak, bidaiak eta erromeriak... Nekez irakur zitezkeen lekuetatik atera, galbahean mimoso astindu eta liburuan bildu ditu Izagirrek.

Ez du edozein prentsa-genero hautatu egileak. Kronika. Oso estimuan ez dagoena sarri, uneko umorea ondoen kontatzen dakiena baina. Euskal prentsaren historiaren beste zati bat dugu jaso, baita euskal historiaren beste kontakizun, bizipen eta giroen adierazle ere. Gorka Bereziartua Mitxelena hitzaurrean dio: "Gauzak mugitzen hasten diren garaietarako literatura



da kronika. (...) Gerora ere, bolada batzuetan gehiago, besteetan gutxiago, kronika beti berragertzen da (...). Bizitzaren martxari egokien lotzen zaion kontamoldea delako, beharbada. Lekuko izan denaren hizkera darabilelako, noski; aldi berean jaso dezakeelako datu hotza eta momentuko emozioen usaina".

LIBURUAREN AURKEZPENA

Apirilaren 26an izango da ARGIAk eta Koldo Izagirrek elkarlanean eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta argitaratu den *Zaldi bat ihes garrezko zelaian* liburuaren aurkezpena Donostiako Udal Liburutegian (Udaletxe zaharrean), eguerdiko 12:00etan, eta Izagirre bera izango da ekitaldiaren gidari. ●

LAN ESKAINTZA

Ikus-entzunezko profesional bat behar dugu ARGIArekin

ARGIAko lantaldea sendotzeko kide berri baten bila gabiltza. Ikus-entzunezko arloan bideo edizioan eta kameralari gisa eskarmentua duen norbait aurkitu nahiko genuke, iniziatiba duena eta taldean lan egiteko prestutasuna duena. Sektorearen beste alor batzuetan interesa eta gaitasunak izatea ere baloratuko da: podcastgintzan, diseinuan, gidoian, argiztapenean... Teknikoki baloratuko da:

Bideo edizioa

(Adobe premiere eta After effects-en ezagutza)

Kameraren erabilera

Diseinua (Photoshopen ezagutza)

Soinu arloko ezagutzak

Gidoigintza

Astean 30 orduko lanaldia eskaintzen dugu, ARGIAk Lasarte-Orian duen egoitzan presentzialki aritzeko, urtebeteko proba epearekin eta luzatzeko aukerarekin.

Interesa izanez gero, bidali curriculumua apirilaren 23a baino lehen honako helbide elektronikora:

multimedia@argia.eus



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Varsoviako ghettoa latatan gordeta

Varsovia, 1943ko apirilaren 19a. Ghettoke juduak, azken hilabeteetan erresistentzia armatua antolatu aritu ondoren, matxinatu egin ziren, eta behingoagatik naziek atzera egitea lortu zuten. Biharamunean bertan gogor erantzun zuten alemaniarrek eta hilabete eskas geroago ghettoa guztiz suntsituzat eman zuten, Thomackie kaleko Sinagoga Handia erre zutenean.

Bi urte eta erdi lehenago, ghettoa abiatzean, 360.000 judu sartu zituzten bertan; amaieran, 10.000-15.000 besterik ez ziren bizirik irten. Treblinkara eraman ez zituztenak, ghettoan bertan hil ziren. Baina han gertatutakoaren oroimenak bizirik iraun zuen ekimen berezi bati esker.

Emanuel Ringelblum historialari juduak hainbat zientzialari, idazle, marrazkilaria, errabino... bildu zituen eta Oyneg Shabat (atseden eguneko poza) izeneko taldea sortu zuten, ghettoke egunero bizitzaren kontakizuna jasotzeko eta, gerra amaitzean, liburu batean jasotzeko. Taldekideek gertatzen ari zenaren kronika txostenetan, saiakeretan edota marrazkietan biltzen joan ziren. Kontzentrazio esparruetan gertatzen ari zena ere jaso ahal izan zuten Yacob Grojanowski esker; Chelmnoko esparrura deportatu zuten arren, ihes egitea lortu zuen, eta han ikusitako eta bizitako basakeriak idatzi zituen. Oyneg Sabathek txosten zehatza osatu zuen eta, poloniar erresistentziaren bidez, Londresera bidaltzea lortu zuten, han argitara zezaten.



Duela 80 urte, Varsoviako ghettoke juduen matxinadak ghettoa suntsitzea eragin zuen, baina han gertatutakoaren kronikak latatan gordeta iraun zuen.

Baina deportazioak, gaixotasunak eta gosea handitu ahala, taldekideen itxaropena txikituz joan zen. Ghettoke bizirik irteteko eta, beraz, liburuak idazteko aukera txikia zutela jakitun, bildutako dokumentazio guztia latorrizko hamar kaxatan eta hiru esne marmitatan ezkatu zuten.

Duela 80 urte matxinada piztu zenean, alemaniarrek ia taldekide guztiak atze-

man eta hil zituzten, baina Ringelblumek familiarekin ihes egitea lortu zuen. Ia bi urte eman zituzten ezkutatuta. Baina gerra amaitzean zela, Gestapoko kideek aurkitu zituzten. Bi familiak hil zituzten, Ringelblumdarrek eta haiei babesa emandako familia osoa ere bai. Baina taldearen helburua betetzea lortu zuten behintzat: esne tupina bat ez beste lata guztiak aurkitu dituzte oraingoz. ●



MEXIKOKO KULTURA IDAZKARITZA

Lurraren munstroa etxera

Espoliatutako ondarea tantaka-tantaka ari da jatorrira itzultzen. Berriki Partenoiko marmol batzuk Atenasera itzuli direla jaso genuen atal honetan bertan, eta orain estatubatuarrek "lurraren munstroa" irudikatzen duen erliebea itzuliko dute Mexikora. Arduradun mexikarrek "pieza olmeka

bilatuena" dela diote, Mesoamerikako zibilizazio aitzindariaren ikonografia aztertzeko funtsezkoa. Espoliazioaren xehetasunak ezezagunak diren arren, pieza AEBetan azaldu zen 1960ko hamarkadaren amaieran. Orain, sekula lapurtu behar ez zutena itzultzea erabaki dute behintzat. ●

“ ”

*Azkenean porrot bat
utziko dugu, baina ederra*

Angel Erro



Askok *Berria*-n egunero idazten duen zutabeari esker ezagutuko dute Angel Erro (Burlata, 1978); beste askok, *Lerro etena* dietarioarengatik (Elkar, 2019). Bazen denbora bat, ordea, poeta gisa plazara agertzen ez zela. 2021ean Blas de Otero - Angela Figuera saria irabazi ondoren, iazko udazkenean Erein argitaletxearen eskutik *Poema liburu bat -irakurtzeko jarraibideak-* argitaratu zuen arte. Ez da oharkabea pasa: aurtengo Nafarroako Liburu Denden Saria ere eskuratu du lan horrek. Hura jaso duen egun berean hitz egin du idazleak ARGIArekin.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA  DANI BLANCO

Irakurtzeko jarraibideak jarri diozu tituluari. Zergatik?

Arrazoi asko dago eta aldi berean funtzionatzen dute denek. Izenburu bezala bururatu zitzaidan; beharbada erabili nezakeen poema baterako, baina liburu osoari jartzeko ere ideia ona izan zitekeela pentsatu nuen. Gero ez nuen nahi horrek behartzea benetako gida-liburu bat egitera, horrelako zerbait injenio-tsua izango zen arren. Baina pentsatu nuen askotariko poemak biltzeko euritako ona izan zitekeela. Iruditzen zait izenburu inofentsiboa dela, jendeari ez dio beldur gehiegirik ematen, ez dut esaten "hau ez dakit zer den"; ez da izenburu poetikoa.

Libururako bidea erraztu nahi izan diozu irakurleari?

Gertatzen da denok daukagula aurreiritzi bat poesia denari buruz. Eta aurreiritzi hori zabaldu beharko litzateke, zeren askotan gelditzen gara eskola garaian beharbada gogoz kontra irakurri genituen gauza horiekin. Edo kurtsileriarekin lotutako topikoekin. Nik uste dut hori dela hesirik handiena jendea poesiarantz hurbiltzeko. Beharbada ez dugu jende dena hurbildu behar ere, baina iruditu zitzaidan *Poema liburu bat -irakurtzeko jarraibideak-* jarrita, behintzat baten bat, inprudenteren bat, erori zitekeela nire tranpa eta liburu hartu.

Garai desberdinetan idatzitako poemak bildu dituzu.

Bai, batzuk *Gorputzeko humoreak* (Alberdania, 2005) liburuaren uharan etorritakoak dira, liburu hartan argitaratzeko modukoak, baina beranduago

sortutakoak. Beste batzuk, amaren heriotzarekin zerikusia daukatenak, aurreko poema-liburu hori argitaratzearekin batera gertatu zenez, momentu horretan sortu zitzaizkidan. Eta uste dut kutsadura moduko bat ere gertatu zela hor, emozionalki eta bestela. Eta geroztik ere joan naiz idazten, batzuetan proiektu handiagoetan pentsatuz; horien hondar batzuk geratu dira. Idatzita neuzkan batzuk berriz irakurri eta ez nituen gogoan ere; ulertzen ez nituenak ere bazeuden... Gertatu zait, esaterako, *Sautrela* izenekoarekin: argitaratu nuen oso ongi uler-tu gabe zeri buruz ari den, baina egun batean, behin argitaratuta, hartu nuen liburu eta argia ikusi nuen: "A, beraz honi buruzko poema zen!".

“ ”

*Aukera bat da
gelditzea eta beste
egun baterako uztea.
Eta beste bat da
zailtasun horiek
bistaratzea*

Liburuko hermetikoenetako bat da.

Klabea balitz bezala idatzita dago. Uste dut adin batean jendeak hala idazten dugula, klabea edo. Baditugu gure arazoak, kezak, gure sekretuak... eta hermetikoak izaten gara, kriptikoak. Guk ulertzen ditugu eta nahi dugu jendeak

uler ditzan, baina pista gehiegirik eman gabe. Eta nik idatzi ditut horrelako zera, baina ez dakit, orain ez dit balio.

Beste zerbait bilatzen duzu?

Zaila da esaten. Argia izan nahi dut. Edo, beno, argia baino, nahi dut zailtasuna beste nonbait egon dadin, ez ulermenaren maila horretan.

Iruditu zait poema hauetako askotan eremu zehaztugabeetan esploratzen ari zarela, sentsazio anbivalenteak deskribatzen.

Horrek ere sortzeko prozesuarekin izango du zerikusia. Beharbada egon daiteke jendea lehenago planifikatzen duena zer idatzi nahi duen, zer transmititu nahi duen, zer mezu utzi... Nik hori miresten dut, saiatu izan naizelako egiten, baina porrot egin dut guztietan, eta horregatik gelditu zaizkit poema solteak. Uste dut nik aldrebes funtzionatzen dudala edo funtzionatzen zaidala hau [barre egin du]. Irudi batekin edo esaldi batekin hasi eta hortik jarraitzen dut tiraka. Eta beharbada gero iristen naiz... Ez dut oso mistikoa eman nahi, baina iritsi zaitezke lehenagotik esan nahi zenuela ez zenekien zerbaitera.

Poema batzuetan esplizituki aipatzen duzu hori, gainera.

Igerilariaren poeman, Ian Thorperen horretan, esaten dut "hau oraindik ez da idatzi nahi dizudan poema". Asmo batekin abiatu zaitezke eta nabaritzen ahal duzu "hau hobe zitekeen" edo "hitz hau ez da nik erabili nahi nuena". Aukera bat da gelditzea eta beste egun baterako uztea. Eta beste bat da zailtasun horiek bistaratzea. Horrek lasaitu egiten gaitu denok, humanoago eta irisgarriago bihurtzen gaitu. Eta baliabide bat ere bada duda sortzea.

Lehenbiziko poemak berak asko markatzen du liburuaren tonua: nekatutako eraikin bat aipatzen duzu, azken agurra... Badira doluari eskainitako poema asko ere. Esango zenuke heriotzak asko markatu duela liburu?

Dolu-poema batzuk badaude, baina badaude bestelakoak ere. Uste dut adinak ere baduela zerikusia: nabaritu dut ezkorragoa naizela, denboraz gehiago pentsatzen dudala; gero eta poema ilunagoak ateratzen zaizkit gai aldetik, baina saiatzen naiz behintzat tonua ez izatea



horrelakoa, *meme* horretan bezala: etxe beltz bat ageri da eta idatzita dauka "hitzak"; eta ondoan etxe berdina koloretan, eta gainean "musika". Musika oso alaia, baina letrak ilunak. Hemen kontatzen ditudanak tristeak dira, dolua dagoelako, denboraren pasatzea... baina saiatzen naiz hori biltzen duena horrelakoa ez izaten.

Ekaineko egunak poemak gogora ekarri dizkit Pello Lizarralde bere nobeletan sortzen dituen giroak.

Konparazio horrek Pello Lizarralde bakarrik haserretu dezake [barre egin du]. Horrelakoekin gertatzen zait idazten ditudala eta gero, berriz irakurtzean, galdetzen diodala nire buruari: "Honek beste norbaiti ere zerbait esango al dio?". Askok gustatzen zait, baina era berean esaten dut: "Hemen ez da ezer gertatzen". Egun bat, paseoan nembilen... irudika dezaket zein egunetan zen... Gero bada beste gauza bat: baditut poema batzuk, nahiz eta gustatu, halako lotsa bat ematen didatenak edo mania hartzen dieldanak. Nire lehenengo liburuetan badira poemak azken hogeitau urteotan ez ditudanak irakurri. Liburua eskuetan hartu eta beti gainpasa egiten ditut. Eta esaten duzu: "Momentuan horrek zerbait esaten bazuen, zerbait egongo da hor, utzi behar ko da". Baina ez dakit.

2005ekoa zen orain arteko zure azken poema liburua. Duela lau urte *Lerro etena* argitaratu zenuen, zure



“ ”

Hitzetatik ere pasatuko da denbora; hitzetatik denbora pasatzeak esan nahi du gauzak bestela ulertuko direla, oker edo beste modu batera

egunerokoetatik abiatutako testuak bilduta. Zergatik hainbeste denbora libururik publikatu gabe?

Egia da denbora asko pasatzen utzi nuela, baina oharkabean pasatu zitzaidalako. Nik oraindik nire burua poeta gaztetzat neukan. Liburu hau sariketara titulu honekin bidali nuen, baina gero, argitaratzeko orduan, zalantza izan nuen: *Poeta gaztea* deitzekoan egon nintzen. Poeta gazte batak, benetako poeta gazteago batak, esan zidan ez zela titulu ona [barre egin du]. Gaztetasuna beti gorapatu izan da eta poesiarekin lotuta dago, halako joko bat egongo litzateke, "hemen poeta heldu bat dago, baina oraindik poeta gaztetzat dauka bere burua".

Uste dut poesia-idazle bezala, lehen esan dizudan dolu horregatik, gelditu egin nintzela: idazten nuen baina publikatzeko animo gehiegirik gabe. Eta egon naiz gauzak metatzen. Ez da estrategia txarra izan, estrategia deitzen ahal bazaio, orain horrekin badaukadalako aukeratzeko material gehiago. Hala gertatu zait *Lerro etena*-rekin, toki askotako gauzak hartuta osatu ahal izan dut mosaiko bat; eta honekin neurri batean gauza bera egin ahal izan dut.

Ian Thorperen poema aipatu duzu lehen, liburuan badira oda olinpikoak ere. Zer du kirolak material poetiko gisa?

Bada zerbait kirolean gazte izatearekin oso lotuta dagoena, halako errelebo az-



karra gertatzen delako mundu horretan: zaletzen zara pilotari batekin, Irribarriarekin adibidez, eta hortik hilabete batera aldatu behar duzu faboritoz, erretiroa hartu duelako. Azkartasun horrek islatzen du besteok bizitzen duguna beste arlo batzuetan.

Denborari buruz ere asko ari zara, gazetetasunaz...

Bai, tematuta nago horrekin. Eta gainera denboraren igarotzea konplot bat bezala bizi dut neurri batean. Denok dakigun zerbait da, baina ezikusia egiten diogu. Ez naiz gogoratzen nork esaten zuen: ez da logikoa mundu guztia etxetik ez ateratzea oihuka, "hiltzera goaz!" esanez. Baina hori eginez gero erotzat hartuko zaituzte eta disimulatu behar da, ezikusiarrena egin, kalean elkarrekin topo egiten dugunean esan "inoiz baino hobeto zaude"... Eta konturatu naiz denboren arteko ezberdintasunak ere niri atentzia deitzen didala. Esaterako, idazten ari zareneko denbora eta beste norbaitek hori jasoko duen denbora: hor bi denbora daude eta azkenean idazlearen eta irakurlearen arteko harremanean, kasurik onenean, beti dago traba hori erdian. Beti pasatuko da denbora, hitzetatik ere pasatuko da denbora; hitzetatik denbora pasatzeak esan nahi du gauzak bestela ulertuko direla, oker edo beste modu batera.

Poeta eta maitea ohean daude oraindik-en kalean dabilen jendeaz hitz egiten duzu jainkotasuna galdu duten pertsonak balira bezala.
Poema horiek, "Poetak ez-dakit-zer"

izenburua dutenak, nahiz eta berez ez zeuden horrela, ordenatu nituen halako istorio bat sortzeko, momentu ezberdinetan eta jende ezberdinarengan pentsatuz idatzita egon arren. Eta aipatzen didazun hori, ba bai, egia da... Kostatzen zait paisanoz jantzita nagoenean poetiko jartzea, baina maitasunak, sexuak, badu hori: abstraitzen zaitu, goratzen zaitu, salbuesten zaitu denetatik... Baina gero hori bukatzen da eta kalean daudenak ere barkatzeko momentu bat egongo da. Haiekin ere bildu beharko dugu, zeratu ondoren.

Manikiak poeman plastikozkoa dirudien jendeari distantziatik begiratzen diozula dirudi.

Hori dauka ona: jende batek uler dezake benetako manikiak direla eta gero irakur daiteke beste zerbait esan nahi balu bezala. Poema horretan grazia egiten didana da maniki asko oso estilizatuak izaten direla, ez dute benetako jendea ematen; eta askotan anonimotasun gehiago emate aldera bururik gabe egoten dira. Gainera edertasunaren momentu batean daude, pose eta jarrera batean geldituak... Interesatzen zitzaidan irudi bezala, nire beste kezka batzuk zehazteko: edertasunak irreflexibotik daukana eta eternizatzailetik.

Hitzaurrea poemarekin amaitu duzu liburua. Amaiera pesimista iruditut zait, hala izatea nahi zenuen?

Behartuta nengoen azkena jartzera *Hitzaurrea* deitzen delako [barre egin du]. Nahiko poema berria da, azkenetakoa; eta bai, pesimista da, ez naiz alaiarentz

joan. Baina pentsatu nuen: "Azkena jarrita, norbait iritsi bada honetara, barkatuko dit pixka bat depresiora bultzatzen badut". Poema hori esaldi batetik sortu zitzaidan: "Heriotzaren hitzaurre bat gara, herio orokorraren azalpen partikular bat". Beharbada esaldi horrekin egin nezakeen zutabe bat, beste poemaliburu baten proiektua, baina poema horretan sartu nuen, eszena horretan, parranda baten ostean etxera joan-ez joan zabiltzan unean eta... ez daukat deklaratzeko gehiagorik. Ukaezina iruditzen zait hori bagarela: heriotzara goaz, baina gure heriotzaren hitzaurre bat gara.

Inork irakurri nahiko ez duena...

Bai, baina beno, etorkizunean jokatu dago aditza. Egia da igual jendeak orain irakurri nahiko nauela, ni pertsona bezala ezagutzen nautenak "ari naute" irakurtzen, baina iritsiko da momentu bat zure ezagunak desagertuko direna eta... Ni liburu-denda zaharretara joaten naiz eta ikusten ditut liburu asko inork irakurtzen ez dituenak denbora gehienez. Eta bueno, ez da ezer gertatzen, iritsiko da momentu bat non inork ez nauen irakurri nahi izango. Eta hori zahartzarorekin ere lotzen da.

Baina poemaren batean aipatzen duzu idaztea izan litekeela heriotzatik salbatzeko ahalegin moduko bat.

Bai, baina porrot edertu bat edukitzeko. Azkenean porrot bat da uzten duzuna, baina bueno, ederra. Epika, askotan, porrotetatik sortzen da, hori herri bezala asko dakigu. ●



LIBURUA

Tximeleta hilak berpizteko hitzak



ZEOZER GAIZKI DOA

BEATRIZ CHIVITE EZKIETA

PAMIELA, 2022

MADDI GALDOS

Bidegurutzeta da zenbait bide gurutzatzen diren gunexaloo, baina zein aterabide hartu jakiten ez den une larria ere halaxe izenda daiteke. Bidegurutzeta, beraz, izaten dira hirietan, baina baita geure buru barruetan ere. Horretaz ere mintzo zaigu Beatriz Chivite Ezkieta (Iruñea, 1991) *Zeozer gaizki doa* poema-bilduma. Bere ibilbideko bosgarrena den poema-liburu honetan 70 olerki bildu ditu iruindarrak, lurraren abaildura edo munduaren nahasmena iradokitzen duten azpitituluen pean xedatutako hiru ataletan banatzen direnak.

Lehendik ere jorratutako eta poeta-
ren han-hemenkako ibilbide propioari lotutako gai eta espazioei jarraiki, kontraesankor aitortzen zaigun subjektu poetikoa gaur egungo mundu hiritar

rean kokatzen da, eta, tartean, bizi dugun garaiak promesten digun balizko hautaketa askearen izaera hertsatzailera du hausnarketa gai: “5m²-ko logelako / koltxoia altxatu eta / yoga estudio bihurtzen da / mahai tolesgarria zabaldu / eta orain bulegoan nago (...) / nire bizitza / murriztu da / non daude / zabaltasuna eta aukerak”. Horrela, irakurleak aurrerabide deritzonaren eta gizatasunaren arteko harremanari eta horrek norbanakoan sortzen duen arrangurari begira dakion akuilu dira poemok.

Izan ere, argi dioskue lehen eta azken olerkiek: zeozer gaizki doa. Ohiz kanpoko zaigu zoriona, eta jariotsu behar lukeena idortzen hasia da. Hots, munduaren amaiera bera ere ageri zaigu letrootan: azken horrekiko kezka liburu osoan nabarmentzen den afera dela ere

esan genezake. Belarri zuloetaraino helarazten digute munduaren amaieraren soinua poemok, eta harrabotsok bilbatu egiten dira gure sukaldeetako bestelako kontuekin: horrelaxe eusten die poetak, besteak beste, bizitzaren edo denboraren joanari zein doluaren eta amodioaren gaiei. Halaber, azpimarratzekoa da horretan guztian desesperantza kutsu mesfidati bat ere antzeman daitekeela: “Amaierara hurbiltzen ari gara / eta jada ez dugu izerdirik egiten / agertu aurretik / malkoak lehortzen zaizkigu”.

Zarata horren guztiaren gaintetik, ordea, bada oraindik hitzarentzat eta poesiarentzat tarterik: liburu hau bera uler genezake, akaso, gure esku dugun tresna bakar den hitzaren bidez hizpide duen soinua banda ordezkatzeko saiakeragisa. ●



MUSIKA

Historizismoa eta dotorezia



SCHERZO

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

XVIII. Mendeko Orkestra harribitxi bat da Europako talde onenen artean, bai bere kalitate eztabaidaezinagatik, bai bere konposizioaren berezitasunagatik. Hain zuzen ere, 1981ean Frans Brüggenek, flauta jole holandar handiak, talde hau sortu zuen, eta handik aurrera bere bizitza profesionala aldatu egin zen. Bakarleri karrera utzi eta musikaren zuzendaritza eta ikerketa historizistan jardun zuen.

Orkestra, berez, lagun talde bat zen, denak musikari handiak, hogeitaherrialdekoak, urtean bost aldiz biltzen zirenak (eta segitzen dute metodo horrekin), irizpide historizisten arabera eta garaiko instrumentu originalekin interpretazioak egiteko.

Aurrekari hauekin, ez da harrizkoa joan den martxoaren 19an Baluarte egindako proposamena benetako arrakasta izatea, eta musika dotore eta

estridentziarik gabe egiteko moduaren adibide izatea.

Haydn-en bi obra interpretatu zituzten. Lehenengoa, 26. sinfonia, re minorean, *Lamentatione* izenekoa. *Sturm und Drang* estiloari jarraituz egindako lehen lanetako bat da hau. Estilo edo mugimendu horrek espresio-askatasuna ematen zien artistei, ilustrazioaren arrazionalismoak ezarritako mugei kontrajarritak. Berezitasun hau jadanik ikusten da obra honen lehen mugimendutik, modu minorra erabiltzeagatik (modu maiorra baino asaldagarriagozat hartzen da), eta hautematen den tentsio erritmikoagatik. Orkestrak, obra honetan Alexander Janiczek kontzertinoak zuzenduta, soinu distiratsua eta ñabardura egokia erakutsi zituen, dotoreziaz bete.

Bigarren lana, berez saioan protagonista izan zena, *Sorkuntzaren Meza* zoragarria izan zen, Joseph Haydn

TALDEAK: XVIII. Mendeko Orkestra; zuzendaria: Daniel Reuss. Iruñeko Orfeoia;

zuzendaria: Igor Ijorra.

BAKARLARIAK: Berit Norbakken (sopranoa), Esther Kuiper (kontraltoa), Kieran Carell (tenorea), Henk Neven (baxua).

EGITARAUA: Haydn-en obrak.

LEKUA: Iruñeko Baluarte Auditorioa.

DATA: martxoaren 19a.

konposatu zituen hamalau mezetako azkenaurrekoa. Haydnen estilo liturgiko guztia gandioso, distiratsua eta alaia da, baina esan daiteke meza hau, *Schöpfungsmesse* delakoa, guztien artean ederrera dela, adierazkorra eta bizitzaz bete, benetako alaitasunaren ospakizuna.

Hau interpretatzeko, XVIII. Mendeko Orkestrarekin batera, Iruñeko Orfeoiaz gozatu ahal izan genuen, Igor Ijurrak zuzendua, une oro egoki aritu zena, orkestrarekin primeran enpastatutako dinamika eta agogikarekin.

Laukote bakarleriak ere lagundu zuen taldearen soinu-oreka lortzen. Berit Norbakken sopranoak, Esther Kuiper kontraltoak, Kieran Carell tenoreak (tinbre ederrarekin) eta Henk Neven baxuak beren ahots dohainak taldearen zerbitzura jartzen jakin zuten, atmosfera benetan orekatua eta liturgikoa sortuz. ●



Meteoritoari "harrikada" esaten diogu hemen

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE HORMAN POSTER

Hozkailuan itsatsita geratuko den imana ala historiaren historian inflexio puntua izango den aurkikuntzaren fosila? Diot, fosilaren aurkikuntza. Balorerik gabeko objektu lirdingatsu eta *kutrea* edo seme-alabek ikasi eta seme-alabei kontatuko dioten ekintza gogoangarria. Erositakoa ala egindakoa. Pertsonala ala kolektiboa. Zein da mundu honetan utzi nahi dugun arrastoa? Nora joateko?

Ni-tik abiatzen dira hiru pertsonaiak abentura honetara: Bardeetan dagoen simulazio zientifikoen eta parke telematikoaren kanpamendura, eta hala bada, espaziora. Gure munduan, lurrian, konforme ez, esperientzarik ez eta beste mundu bat esploratzera doaz, non benetan han egongo balira bezala jokatu behar duten. Eta horrek areagotu egiten du garunak zein eguneroko jardunak jarritako mugak gainditzeko gaitasuna.

Mundu fisikoaren eta emozionalaren

irakurketa zein lanketa nahastu egingo dira eta hainbat aurkikuntza egingo dute esparru bietan. *Gu* nor eta zer den galdetzen dute lerroartean, zer nahi dugun eta zertan ari garen.

Ezinbestean ageriko dira kontraesanak, forma desberdinetan azalduak: soinean jantzita edo puztuak; plastikoan, landareetan zein mekanizatuta. Bisualak izango dira eta erakargarriak, hitzez baino irudiz azalduko dituztenak. Hori baita antzezlan honen punturik interesgarrienetakoa: ikusgarritasuna. Pertsonaiek lurraz haragoko espazioan zehar *flipatzeaz* gain, ikuslea agertokiko espazioaz gozatzera darama, barrenak kanporatzearen ideia esplizituki adierazita. Darabilten elementuen konbinazioak, errekurso desberdinen erabilerak eta batez ere jantzien eta atrezzoaren aukeraketak beste mundu bateko giroaren eta errealtatearen arteko jolasa uztartzen ditu. Horren bueltan hiru aktore bihurri, obraren izaera mantentzearen.

ANTZEZLANA: *Souvenir*, komeria estralurtarra.

TESTUA ETA DRAMATURGIA: Horman Poster.

ZUZENDARIAK: Igor de Quadra eta Jon Ander Urresti. **AKTOREAK:** Maite Aizpurua, Xanti Agirrezabala eta Matxalen de Pedro.

NOIZ/NON: Martxoaren 4an, Gasteszenan (Donostia).

Hizkuntza absurdoak barre eta algarak are absurdoagoak bilakatzen ditu; kutsakorrak, edozein hitz edo keinurekin egitekoak, errazak. Egileek arrazoi dute "esplorazio espazialaren ametsaz mozkortutako hiru lagun" deskribatzen dituztenean. Horman Poster kolektiboa *Antigone* tragediaren lanetik dator umorea egitera orain. Obra honen funtsa umoreak baitakar, komedia estralurtarrak. Eta umorea zer den, zerk eragiten digun barrea, zer bilatzen dugun, zer bilakatzen garen... *Souvenir* ez da sinplea, ez hutsala, ez irainkorra. Ez da estereotipatua, ez normala, ez esperotakoa. *Souvenir* ez da merkea, ez *kutrea*, ez lirdingatsua. Absurdoa da onerako eta txarrerako, esateko duena ere barre artean galtzen delako. Umorea kontu serioa da eta gauza asko konta ditzake. Nire iritiz ez litzateke derrigor entretenitzera mugatu beharko. Dena den, oroigarri ederra da hozkailura hurbildu eta irribarrea aterako dizun iman hau. ●



Gurutzegrama

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1														
2														
3														
4														
5														
6														
7														
8														

Sudoku

9	6			5				
4	3		6			5	9	2
8		7		1	2		4	6
7	4		3	8		2	6	1
	2	3	1			7		
			7		4			3
3			5			4		
6	9		2	3				
	1	5		4			3	

EZKER-ESKUIN:

- 1.** Uretan bizi den protozoo bizkarroia. / Bizkaiko badia, Nerbioiren bokalean.
- 2.** Luzatu aditzaren infinitiboa. / Hegazkin.
- 3.** Adierazpen.
- 4.** Gipuzkoako futbol talde nagusia.
- 5.** Biloa. / Haizezko zurrunbiloak.
- 6.** Ozenki. / Dilindan, zintzilik.
- 7.** Elementu kimiko. / Hazteri (Iparraldean).
- 8.** Iskanbila. / Binaka jarri.

GOITIK BEHERA:


- 1.** Bihia, garaua. / Zakurra.
- 2.** Jatorriz Euskal Herrikoa den karta joko. / Zimur.
- 3.** Lapurdiko udalerrria (argazkian).
- 4.** Barrendik.
- 5.** Abagune, aukera. / Ño, tori!
- 6.** Bete. / Gitarra jotzeko pieza.
- 7.** Hegazkintza.
- 8.** Musika tresna.
- 9.** Modu atzizkia. / Nafarroako herria.
- 10.** Gipuzkoako herria. / Ukan.
- 11.** Mirespena.
- 12.** Burdinolak.
- 13.** Kiroi-lehiaketa.
- 14.** Akats, nario (alderantziz).
- 15.** Garesti.

ZAILA

	1			8				9
						1		
			7	2			3	
	6	3			7		8	
			4	5			2	
	4							3
		5				6		
8						9		2
4		6		3		9		7

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



RU I RR I
A A
I TX

DI MO A
O A, B
N G U S
R A AR

Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Une labur
- Donari, sari
- Musika tresna
- Baso
- Tarro, altu
- Sama, lepoa
- Ulertu
- Otea hazten den toki
- Edo-ren indargarria
- Hazitarako txerri ar
- Bataiarri
- Oinaren azpia
- Gantzagi

LIPAR
KOIKE

EBAZPENAK

BAINA NAGUSI TXARRA, DIRUA MORROI ONA, ATSOITZITZA

4	2	6	5	3	8	9	1	7
8	7	1	6	4	9	3	3	5
9	3	5	1	7	2	6	6	4
2	4	7	8	1	6	5	9	3
1	9	8	4	5	3	7	2	6
5	6	3	2	9	7	4	8	1
6	5	9	7	2	1	8	3	4
3	8	2	9	6	4	1	7	5
7	1	4	3	8	5	2	6	9

ZAILA

2	1	5	8	4	9	6	3	7
6	9	4	2	3	7	8	1	5
3	7	8	5	6	1	4	2	9
1	8	6	7	2	4	9	5	3
5	2	3	1	9	6	7	8	4
7	4	9	3	8	5	2	6	1
8	5	7	9	1	2	3	4	6
4	3	1	6	7	8	5	9	2
9	6	2	4	5	3	1	7	8

ANAGRAMAK

ESPERIO, 4. ERREALA; 5. ILEA, ZIRIMOLAK; 6. OZEN, ZINTZILIK; 7. RUTENIO, ZARAGAR, 8. ARAZOA, BINAKATU, GOITIK BEHERA: 1. ALEA, ORA, 2. MUS, IZUR, 3. EZPELETA, 4. BARENNEZ, 5. ERA, NO, 6. ASE, ZIA, 7. ABIAZIO, 8. BIOLINI, 9. RO, ARTZI, 10. AIA, IZAN, 11. MIRA, 12. OLAK, 13. LIGA, 14. AKAT, 15. KARU.

Zuriñe Hidalgo

ENRAIZADAS-EN AMA



EMAKUMEEN ZAINZA ETA ONGIZATEA OINARRI

"Lehen aldiz 2020an joan nintzen erre-tiro batera, Sri Lankara. Ordurako autoezagutza eta ziklo menstrualaren munduan bete-betean murgilduta nengo. Formakuntza jaso eta gai hauek zabaltzeko helburuz, hainbat tailer egin nituen Euskal Herrian. Sororitatea praktikara eramateko hautu pertsonala egin nuen, baina nire nahia haratago zihoan: autoezagutza eta sororitatea, besteak beste, kolektibotasunetik landu nahi nituen. Emakumeei zuzendutako espazio seguruak sortzeko beharra ikusi nuen, baina ez nekien espazio hauek zein formatutan antolatu. Sri Lankako erre-tiroak asko lagundu ninduen eta argi ikusi eta sentitu nuen: tailer formatua motz geratzen zen, eta, beraz, esperientzia luzeagoak sortzea oso aberasgarria izan zitekeela ikusi nuen".

"Sistemak ez ditu emakume ahaldunduak nahi, ez zaio komeni"

Abeslaria, komunikatzailea, sortzailea eta ekintzailea da Zuriñe Hidalgo (1990, Gasteiz). Batek baino gehiagok Hesian taldearekin oholtzan edo telebistan ezagutu du. 2020an, emakumeen zaintza, autoezagutza eta ahalduntzea jomuga dituen Enraizadas proiektua abiatu zuen.

 SAIOA BALEZTENA  ENRAIZADAS

Noiz eta nola sortu zen Enraizadas?

Konfinamenduan izan zen. Guztia eta guztiok gelditu ginen eta hortxe ikusi nuen neure momentua, neure aukera. Ordura arte, nire lan egoera eta bizimoduagatik, erretiroak antolatzearen ideia ezinezkoa zen. Baina etxean itxita geundenean eta dena kolokan zegoenean, hau da, ezjakintasun etengabe bizi ginenean eta aldi berean guztia posible zenean, nire ideia utopiko hori garatzen hasi nintzen. Ekainean, askatu gintuzten momentuan, maleta eta kotxea hartu, eta Enraizadas proiektuari ekin nion. Ibizara egin nuen alde.

Zer bilatzen zenuen?

Emakumearen autoezagutzan, ahalduntzean, zaintzan eta ongizatean lan egitea: sororitateaz hitz egin, hausnartu eta praktikara eraman. Elkar entzun, sostengatu eta babesten diren emakume talde baten parte direla sentitzea. Alegia, erretiroetan parte hartzen duen bakoitza den bezalakoa azaltzeko askatasuna sentitzea, konplexurik eta "autoepairik" gabe.

Emakumeon ongizatea helburu duen espazio segurua sortzea

duzu xede. Gizartean espazio seguruak izatea ohikoa da?

Espazio hauek beharrezkoak ditugula azpimarratu nahiko nuke alde aurretik. Ez dira asko gure burua guztiz aske izaten uzten diguten espazioak. Besteen epai edo kritikengatik mugatuta bizi gara askotan, edo autozentsuratuta. Eta sarri epai horren beldur garenez, ez gara modu askean komunikatzen, ez gara %100ean gu izaten eta oso tristea iruditzen zait.

Emakumeok gure burua nahiko ezagutzen dugu?

Sistemak ez ditu emakume ahaldunduak nahi, ez zaio komeni. Autoezagutzak ahalduntzen gaitu eta horrek, aldi berean, libre egiten gaitu. Imajinatu gizarte batean, non emakume guztiak libre sentitzen eta libreak garen.

Askatasuna boterea da, sistemari ez zaio komeni, kontrola galdu egingo litzatekeelako. Horregatik, gure gorputzak ezagutzea, onartzea, maitatzea eta modu libre batean bizitzea guztiz iraultzailea da, txikitatik burua beldurrez, tabuz, gorrotoz, konparazioz... betetzen digutelako.

Lehendabiziko erretiroa Ibizan antolatu zenuen. Zergatik han?

Aspaldi maitemindu nintzen irlarekin. Bertako energia benetan ederra da, eta munduko toki bat aukeratu behar nuen, Ibizan hautatu nuen. Zoragarria izan zen. Gaur egun, bertaratu ziren emakumeekin oso harreman estu, osasuntsu eta ederra mantentzen dut, oso lagun onak dira.

Hiru urte geroago, Maldivak, Sri Lanka eta Balira ere iritsi zarete. Nola suertatu zen aukera?

Egia esan, toki horiek ez nituen nik aukeratu. Bertan erretiroak antolatzeko aukera heldu zitzaidan, beste pertsona batzuk toki hauetan hori egiteko proposamena luzatuta. Lehena Panaman izan zen, eta beste guztiak etorri dira atzetik.

Zer aurkitu dezake zure erretiroetan parte hartzen duen emakume batek?

Erretiro bakoitza bakarra da, eta egia esan, maite dut askotariko esperientziak sortzeko aukera izatea, guztiok ez baitugu erretiro hauetan berdina bilatzen, eta ederra da aukera ezberdinak dituen abanikoa eskuragai izatea. Ibizan emakume lantalde zoragarria dago eta hauxe da gure kanpamentu base nagusia. Hainbat tailer eta lanketa egiten ditugu: yoga, biodantza, chakra-k, ziklo menstruala... Etortzen diren gainontzeko emakumeen eskutik, barne lanketa sakona egiten da. Maldivetako esperientzia askoz ere abenturazaleagoa da. Sri Lankakoak, besteak beste, bertako emakume komunitatearekin lan egiteari ematen dio lehentasuna.

Aurrera begirako asmorik baduzu?

2023a ederra dator, batek daki zer gertatuko den 2024an. Bizitzak buelta asko ematen ditu eta egia esan, gustuko dut etorkizuna idatzi barik ikusi eta aurreikusitako gabe sentitzea. Inork ez du liburu bat irakurtzean azkeneko orrialdeetara jotzen amaiera ezagutzeko, bestela, grazia guztia galduko luke. Bizitza, niretzat, halako zerbait da, nahiz eta beti ez den horrela izaten. Lehen, ezjakintasunak eta kontrol ezak antsietatea sorrarazten zidaten. Orain, hau sentitzea ikaragarria egiten zait, eta bizimodu honekin askatasuna sentitzen dut.

Enraizadas-en eskutik han eta hemen bizi zara, hori da zure bizimodua?

Nire bizitza azken urteetan asko aldatu



"Ez dira asko gure burua guztiz aske izaten uzten diguten espazioak".

da eta poliki-poliki moldatzen ari naiz. Bidaiatzea asko gustatzen zait, eta orain, ordenagailua hartu eta munduko edozein tokitik lan egin ahal izatea plazer hutsa da.

Bukatzeke, zein toki du musikak orain zure bizitzan?

Musika beti dago eta beti egongo da presente, nire pasiorik handiena delako eta zoriontsu egiten nauelako. Urte asko eman ditut fokuen azpian, baina orain

beste toki batean kokatuta dago. Musika egiteko eta kantatzeko beste espazio batzuk ezagutzen ari naiz.

Eta Enraizadas proiektuan?

Ezagutu berri nauen pertsona orok minutu gutxi beharko ditu jakiteko kantatzea maite dudala, orduak eta orduak ematen baititut kantuan. Musika nire bizitzako espazio guztietan presente dago, baita Enraizadas-en ere. ●

Galdakaoko lasto-sua

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Gauzek hartu duten tankera ikusita gezurra dirudi, baina garai batean, notiziei begiratzen zenienean, erraz samar desberdintzen zenuen nor ari zen betiko politika politikeroan eta nor zetorren, aldiz, produktu elektoral berriak besapean hartuta, merkatua dominatzen zuten marka zaharren kontra #promesa biralak eginez.

Gardentasuna izan zen horietako bat. Orain ia inor ez da gogoratzen, baina duela hamar urteko gauza publikoan mundu guztiak oheratu nahi zuen gardentasunarekin. Jendea nazkatuta zegoen lau lagunen artean jatetxe garesti bateko zona erreserbatuan sinatutako paktuez. Portzieto, jendea gu ginen orduan ere: jakin nahi genuen zer hitzaritzen zen, zeren truke, noiz, nola, non.

Glasnost horren alde fuertean egin zutenen artean, Italiako M5S alderdia: 2013an streaming bidez emititu zuten estatuko gobernua osatzeko PDrekin egindako bilera. Eta garbi geratu zen den-den-den-dena jendaurrean egitea ez dela oso ondo ezkontzen paraje hauetako zoru demokratikoarekin. Erabiltzen dugun sistema instituzionalean, izan ere, tratu inportanteak itzal dezentte dagoen lekuetan gertatzen dira eta axaleko kontuak izaten dira kiskali arte fokupean beratzen jartzen direnak.

Hortik iragazi liteke polemika politikoak ulertzeko printzipioen bat. Adibidez hau: baldintza normaletan, gai bat garrantzitsua da politikarientzat, baldin eta diskrezioz lantzen badute; eta alderantziz, gaiak ez dauka batera garrantzirik haientzat, baldin eta aukera eduki bezain pronto prentsari jaurtitzen badiote zakurrari hezurra botatzen zaion bezala.

Beraz, pentsa dezakezu euskal gaztakaren memoriak ez dirudiela gai oso inportantea politika politikeroan



ari direnentzat, Galdakao Oroimena webgunearen kontura hedabideetan piztu den lasto-sua ikusita. Aurtengo otsailetik martxan zegoen ataria, talde politiko guztiek ikusi dute publikoaren esku jarri aurretik, metodologia argia erabili du Aranzadi Zientzia Elkarteak, “ez baztertu, ez legitimatu, ez garrantzirik kendu” markoa jarraituz, Gogora Institutuak adierazitako bidetik.

Baina berdin da: maiatzean botoak ematea tokatzen da eta apirilean hasi dira titularrak. Espainiako Gobernuaren EAeko ordezkariak –oroimen historikoa: behin kontainerrez mozorrotuta ikusi zenuen–, txiklela hauteskundetaraino luzatzeko modua eginez, hila-beteko epea eman du web horretatik eta antzekoak dauzkaten udalenetatik ETako kideak kentzeko.

Guztiak, ñabardurarik gabe. Tra- taera bera merezi dute sakabanaketa jasan dutenek, torturatuek eta GALEk hildakoek. Metodologia argia da Denis Itxasok proposatu duena ere: ez galdu

denborarik zenbait pertsonari esku- bideak zein gradutan urratu zaizkien debatitzen... desagerrarazi mapatik! Orain, gainera, errazagoa da lehen baino. Klik pare batekin egin dezakezu, ez dituzu eskuak karez zikindu behar ere.

Dena den, udaltxo batzuen webgu- neak zikiratzen aritzea baino, ez al luke hobe saltsa hau loditu duen alderdiak 1968tik indarrean dagoen Espainiako sekretu ofizialen legeaz arduratzea? Gaiak, noski, ez du pasio mediatiko han- dirik sortzen –eta lehen aipatu dugun printzipioari segituz, horrexegatik da inportantea–: Luis Carrero Blanco de- lako baten sinadura dauka legea ga- ratzeko dekretuak eta humanitateak historian ezagutu duen gobernurik pro- gresistena hura aldatzen saiatu zenean ere, paper batzuk 2050 ingurura arte blindatzeko asmoa adierazi zuen.

Hor dagoen guztia ezkututzen ari de- nak, hobetoxeago aukeratu behar luke zerekin preparatu hauteskunde aurre- ko debaldeko festa, nik uste. ●

 ARGIA *Azoka*



Prezioa **32 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa

1. saioaren gaia:
Energia

Txetxu Ezkurra Gares Energia
proiektuko kidearen eskutik

Bestalde, **Balardipeco Erleak**
esperientzia ezagutuko dugu

**Mattin Jauregi eta
Eli Pagolak aurkeztuta**

Asteazkenero bideo-podcasta
ARGIA eta plataforma guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

